



**GHK**  
Gipuzkoako  
Hondakinen  
Kudeaketa



ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015 UZT. 22

Aprobado por Consejo de Administración. (e)an onartua

Hernani,

2015


ABU.  
AGO.



**GHK**  
Gipuzkoako  
Hondakinen  
Kudeaketa

Hondakinak,

**SAN MARKO MANKOMUNITATEKO HIRI-  
HONDAKINAK GARRAIATZEKO ZERBITZU-  
KONTRATUAK BETE BEHARKO DUEN  
BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN  
AGIRIA**



**AURKIBIDEA**

<b>SARRERA</b> .....	1
<b>I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK</b> .....	1
1 KONTRATUAREN XEDEA .....	2
2 KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.....	2
3 ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA .....	3
4 KONTRATUAREN EPEAK .....	3
5 LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA .....	3
6 ORDAINTZEKO MODUA.....	4
7 PREZIOAK BERRIKUSTEA .....	4
8 KONTRATUAREN DOKUMENTUAK ETA KONTRAESANAREN KLAUSULA OROKORRA.....	5
9 KONTRATATZAILEAREN PROFILA.....	5
10 PUBLIZITATEA.....	5
11 JURISDIKZIOA.....	5
<b>II. KAPITULUA: KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA</b> .....	6
12 ESLEIPENAREN PROZEDURA ETA MODUA .....	6
13 LIZITATZAILEEN ESKURA JARRITAKO DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIOA.....	6
14 GAITASUN-BALDINTZAK.....	6
15 KONTSULTAK ETA AZALPENAK FORMULATZEA.....	7
16 PROPOSAMENAK AURKEZTEA .....	8
16.1 Proposamenak aurkezteko lekua eta epea .....	8
16.2 Dokumentazioak bete beharreko baldintzak.....	9
16.3 Proposamenak aurkezteko modua. ....	10
17 BEHIN-BEHINEKO BERMEAK ERATZEA .....	15
18 AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK .....	16



19	PROPOSAMEN NEURRIGABEAK EDO OHIZ KANPOKOAK	20
20	PROPOSAMENAK IREKITZEA, ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA	21
20.1	Proposamenak irekitzea	21
20.2	Eskaintzak sailkatzea	21
20.3	Esleipena	22
20.4	Esleipena jakinaraztea	22
20.5	Esleipena ebaztea	23
20.6	Dokumentazioa zaintzea	23
21	ESLEIPENDUNAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK	23
22	BEHIN BETIKO BERMEA	23
23	KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA	24
23.1	Kontratua formalizatzea	25
23.2	Ez formalizatzearen eraginak	25
III.	KAPITULUA: ALDERDIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	25
24	KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK	25
24.1	Kontraprestazioa jasotzeko eskubidea	26
24.2	Kontratua lagatzea	26
24.3	Azpikontratatzea	26
25	KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK	26
25.1	Beharrezko langileak	27
25.2	Langileak subrogatzea	28
25.3	Konfidentzialtasuna	28
26	KONTRATAZIO-ORGANOAREN ESKUBIDEAK (GHK-KO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUA)	29
26.1	Kontratua aldatzea	29
26.2	Aplikatzekoa den araudian aitortutako eskubideak	29





27	KONTRATAZIO-ORGANOAREN BETEBEHARRAK	29
<b>IV. KAPITULUA: KONTRATUA GAUZATZEAREN GARAPENA ETA JARRAIPENA</b>		
28	ZERBITZUAK ESKAINTZEN HASTEA	30
28.1	Lanak hastea	30
29	LAN-PROGRAMA	30
30	LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA	30
31	LANEN ZUZENDARITZA	31
32	KONTRATISTAREN ORDEZKARIA	31
32.1	Izendapena	31
32.2	Zereginak	31
33	ZERBITZUAK GAUZATZEKO ERREGIMENA	32
34	KONTRATISTAREN BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK	32
35	ARRISKUA ETA MENTURA ZERBITZUAK GAUZATZEAN	33
36	ZERBITZUAK GAUZATZEN DIREN BITARTEAN SORTZEN DIREN DESADOSTASUNAK KONPONTZEA	33
37	DOKUMENTAZIOA KONTROLATZEA ETA EMATEA	33
37.1	Dokumentazioa kontrolatzea	33
37.2	Dokumentazioa ematea	34
38	BERMEAREN EPEA	34
39	BERMEAREN EPEAREN AMAIERAKO ZIURTAGIRIA	34
40	KONTRATUAREN HARRERA	35
<b>V. KAPITULUA: DIZIPLINA-ARAUBIDEA</b>		
41	ARAU-HAUSTEAK	35
41.1	Arau-hauste oso larriak	36
41.2	Arau-hauste larriak	36
41.3	Arau-hauste arinak	37
42	ZIGORRAK	37



42.1	Zigorren araubidea .....	37
42.2	Zigorrak mailakatzea .....	38
42.3	Zigorrak eta isun hertsatzaileak eguneratzea .....	38
<b>VI. KAPITULUA: KONTRATUAREN AMAIERA .....</b>		<b>38</b>
43	<b>KONTRATUAREN AMAIERA.....</b>	<b>38</b>
43.1	Kontratua betetzea. ....	38
43.2	Kontratua suntsiaraztea.....	38
<b>I. ERANSKINA. ARDURAPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA .....</b>		<b>40</b>
<b>II. ERANSKINA. PROPOSAMENA GHK-KO SARRERA-ERREGISTROAN ENTREGATZEKO EREDUA.....</b>		<b>41</b>
<b>III. ERANSKINA. ENPRESA ATZERRITARREN ADIERAZPENA.....</b>		<b>42</b>
<b>IV. ERANSKINA. KOMUNIKAZIOETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA(K).....</b>		<b>43</b>
<b>V. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA.....</b>		<b>44</b>

**ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK**

**2015 UZT. 22**

..... (e)an onartua  
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015


ABU.  
AGO.

04



**GHK**  
Gipuzkoako  
Hondakinen  
Kudeaketa

Kontseieriak,



## SARRERA

Baldintza Administratibo Berezien Agiri honen (aurrerantzean BABA) xedea hiri-hondakinak garraiatzeko zerbitzua kontratatzeko baldintza administratiboak ezartzea da. Garraioa modu berezian egingo da fluxu bakoitzaren arabera, hau da, garraioan fluxu bakoitzaren ezaugarriak mantenduz, fluxu desberdinak nahasteko aukera egon ez dadin zamatzea eta garraioa egitean. Modu berezian garraiatu beharreko fluxuak errefusa eta biohondakina izango dira.

Errefusa San Marko Mankomunitateko transferentzia-estaziotik desagerrarazteko Lapatxeko hondakindegira (Azpeitia) garraiatuko da.

Biohondakina fluxu hori tratatzeko instalazioetara garraiatuko da; horiek, une honetan, Lapatxeko Konpostaje-instalazioa (Azpeitia), GHKri dagokiona, eta Funesen (Nafarroa) dagoen Tecnología Industrial de Reciclaje, S.L.-ren instalazioak, Itxaso udalerrian (Lapurdi, Frantzia) dagoen Loreki eta Centellesen (Bartzelona) dagoen Suministres Organics Terres I Substrats, S.L. instalazioa dira, kanpoko instalazioak; horiekin GHKk esparru akordio bat formalizatu du, biohondakina tratatzeko eta konposta lortzeko. Gaur egun biohondakina Caparrosen (Nafarroa) HTN Biogas enpresara ere eramaten da tratamendua jaso dezan.

Une honetan eraikuntza-fasean dago Bergarako Epeleko konpostaje-instalazioa, eta hori abian jartzen den bitartean, biohondakina tratatzeko zerbitzua baimendutako tratamendu-instalazioen bidez egingo da.

Gipuzkoako Hondakinen Kantsortzioak, bere pertsona bakarreko sozietatearen bidez, **GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, S.A.U.** (aurrerantzean GHK), hiri-hondakin solidoak tratatzeko eta desagerrarazteko entitate eskuduna da, baita hondakin horiek dagokien norakora garraiatzeko ere, beraz, horren lizitazioa egingo du.

Kontratuak indarrean dirauen bitartean baliteke beste konpostaje-instalazio batzuk agertzea, edo horien beharra, baina horrek ez dio eragingo kontratu honi.

## I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

Baldintza-agiri honetan San Marko Mankomunitateko hondakinak garraiatzeko zerbitzua kontratatzeko prozedurak bete beharko dituen baldintza administratibo bereziak jasotzen dira; hori, GHK merkataritza-sozietateak esleituko du, Gipuzkoako Hondakinen Kantsortzioaren kontura eta honek hala aginduta.





## 1 KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea San Marko Mankomunitatetik hiri-hondakinak garraiatzeko zerbitzua kontratatzea da, modu bereizian biohondakinerako eta errefuserako.

Hiri-hondakinak San Marko transferentzia-estaziotik, Donostiako udalerrriaren barruan, hondakinak desagerrarazteko zentroetaraino garraiatuko dira; zentro horiek Lapatxeko (Azpeitia) hondakindegian daude, errefusaren kasuan, eta biohondakinaren garraioaren kasuan, Lapatxeko (Azpeitia) eta Epele (Bergara) konpostaje-instalazioetaraino, GHKri dagozkionak, eta Funesen (Nafarroa) dagoen Tecnología Industrial de Reciclaje, S.L.-ren, Itxaso udalerrian (Lapurdi, Frantzia) dagoen Loreki eta Centellesen (Bartzelona) dagoen Suministres Organics Terres I Substrats, S.L. instalazioetaraino; horiek kanpoko instalazioak dira, eta bi hondakin fluxuei ezartzen zaien norakoaren arabera garraiatuko dira.

Gauzatu behar den zerbitzua Baldintza Teknikoen Agiriaren 2. klausulan deskribatzen dena da.

## 2 KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu honek izaera pribatua du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (aurrerantzean SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 20.1. artikulua arabera, eta Baldintza Administratibo Berezien Agiri honetan (aurrerantzean BABA edo baldintza-agiria) eta bere eranskin guztietan, Baldintza Teknikoen Agirian eta kontratuaren gainerako dokumentu guztietan xedatutakoa beteko du [8. klausulan](#) ezarritako moduan.

Kontratu honek, prestakuntza eta esleipenari dagokienez, SPKLTBak eta hura garatzen duten xedapenek ezarritakoa bete beharko du, eta modu osagarrian, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira, GHK Herri Administrazio izaera ez duen sektore publikoko entitate bat delako.

Kontratuak, bere ondorioei eta amaierari dagokienez, Baldintza Ekonomiko-administratiboan Agiri hau, Baldintza Teknikoen Agiria, GHKko Kontratazioaren Barne Jarraibideak eta, horietan aurreikusten ez denerako, zuzenbide pribatuaren arauak beteko ditu.

Gainera, SPKLTB eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean, HAKLEO) aplikatu beharko dira baldintza-agiri honek espreski testu arauemaile horietara igortzen duenean.

Kontratuak, eta adostutakoa gauzatzean aplikagarriak diren gainerako edozein motako kontratu-dokumentuak ez ezagutzeak, edozein terminotan, ez du esleipenduna horiek betetzeko duen betebeharretik salbuetsiko.







Idazkariak,

### 3 ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Entitate kontratatzailea GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, S.A.U. sozietatea da (aurrerantzean, GHK).

Kontratu honen kontratazio-organoa GHKren Administrazio-kontseilua da, eta honek, kasua balitz eta aplikatu beharreko zuzenbide pribatuaren arauen arabera, berriazko ahalmena eman ahal izango die jarduera jakin batzuek gauzatzeko egokitzat deritzen pertsoneri.

### 4 KONTRATUAREN EPEAK

Kontratua gauzatzeko epea urte batekoa izango da, kontratua formalizatzen denetik hasita.

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U.-k kontratuaren luzapen bat adostu ahalko du, gehienez urtebeteko iraupenekoa. Luzapena automatikoki aplikatuko da sozietatearen aurka aurreabisurik ez badago kontratua amaitu baino hiru hilabete lehenagoko epean.

### 5 LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **BI MILIOI EHUN ETA HOGEITA HAMABOST MILA EUROKO (2.135.000€)** (BEZ gabe) zenbatekoan finkatu da; urte bati gehi urtebeteko luzapenari dagokio.

Urteroko bakoitzari dagokion lizitazioaren oinarrizko aurrekontua MILIOI BAT HIRUROGEITA ZAZPI MILA EURO (1.067.000€) izango da, 1, 2, 3, 4, 5 eta 6. prezioetan kontuan hartutako urteko zenbatekoak lizitazioaren unitate-prezio maximoaz biderkatzearen ondorioz, baldintza-agiri honen [18. klausulan](#) hirugarren irizpidean jasotako koadroetan ezartzen den bezala.

Kontratu honen prezioa esleipendunaren eskaintza ekonomikotik eratortzen dena izango da. Kasu guztietan, kontratuaren prezioak ezingo du gainditu lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZ gabe. Zenbateko hori gainditzen duten proposamenak ez dira onartuko.

Ulertuko da kontratuaren prezioaren barruan daudela aplikatu beharreko edozein motatako zerga, tasa eta kanonak, baita baldintza-agiri honetan eta kontratuaren gainerako dokumentuetan aurreikusitako betebeharrak betetzetik kontratistarentzat sortzen den bestelako gastu oro ere.



Idazkariak

Lizitatuzaileek, eskaintzen duten garraiatutako tona bakoitzeko presioan, industria-gastu eta irabazien kontzeptu guztiak sartuko dituzte, jasanarazi beharreko BEZa izan ezik; hori partida bereizi gisa adieraziko da.

Eskaini beharreko unitate-prezioaren lizitazio motak ezingo du gainditu ondoko koadroan zehazten den unitate-prezio maximo bakoitzaren zenbatekoa, BEZ gabe:

BIOHONDAKINA ETA ERREFUSA	BIOHONDAKINA				BIOHONDAKINA ETA ERREFUSA
GIPUZKOAKO HONDAKINDEGI AK ETA INSTALAZIOAK	FUNES	LOREKI	BARTZELONA	CAPARROSO	ALDAKORRA
12€/tn	17€/tn	9€/tn	25€/tn	17€/tn	0,13€/tn/kmko

## 6 ORDAINTZEKO MODUA

Prezioa hileror ordainduko da, garraiatutako tona kopuruaren arabera.

Hilabete bakoitzaren amaieran, eta hurrengo hilabetearen lehenengo 7 egun baliodunen barruan, esleipendunak aurreko hilabetean garraiatutako tonei dagokien faktura igorriko du, baita egindako zerbitzuaren gainerako dokumentazio xehatua ere, GHKk eskatutako protokoloa betez, aurreko hilabetean garraiatutako tonei dagokiena. Kontuan hartu behar diren tonak hondakindegian edo tratamendu-instalazioan sartzean baskulako tiketaren bidez justifikatutakoak izango dira; horiek fakturari erantsi beharko dizkio esleipendunak.

Ordainketa transferentzia bidez egingo da, GHKk igorritako fakturarekin ados dagoela adierazi eta 60 egunera.

## 7 PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratuaren prezioa urtero berrikusiko da estatuko Kontsumoaren Prezioen Indizeak duen igoeraren arabera, eta aplikatu egin beharko da, hala badagokio, kontratuaren lehenengo urterotik hasita. Kasu guztietan aplikatu beharko da kontratuaren prezioari egozten zaizkion kontzeptu guztietan, amortizazioan izan ezik, proposamen ekonomikoari erantsi beharreko memoria ekonomikoan aurkezten den xehetasunaren arabera.



Makelarik,  


## 8 KONTRATUAREN DOKUMENTUAK ETA KONTRAESANAREN KLAUSULA OROKORRA

Kontratu izaera izango dute eta, beraz, alderdiek derrigorrean bete beharko dituzte ondoko dokumentuak eta dagozkien eranskinak:

1. Baldintza Administratibo Berezien Agiri hau.
2. Baldintza Tekniko Berezien Agiria, Baldintza Administratibo Berezien Agiriarekin kontraesanean ez dagoen guztian.
3. Kontratua formalizatzeko dokumentua eta horren ondoren sinatuko diren kontratua garatzeko dokumentuak.
4. Esleipendunak aurkeztutako eskaintza.

Esleipendunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu horiekin ados dagoela adierazteko, kontratua formalizatzeko orduan.

Dokumentuen terminoetan kontraesanen bat badago, dokumentu horiek interpretatzeko kontuan hartuko da klausula honetan zein ordenatan zerrendatzen diren, eta lehentasuna izango du zerrendan aurretik agertzen denak.

## 9 KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Gardentasuna eta kontratu-jarduerari buruzko informazioa publikoki eskuratzea ziurtatzeko xedearekin, eta SPKLTBak eskatutako kasuetan bestelako publizitate-bideak erabiltzea eragotzi gabe, lizitatzailleek GHKren kontratatzailearen profileraren sartu ahalko dute Interneteko atariaren bidez: <http://www.ghk.eus>.


## 10 PUBLIZITATEA

Lizitazio hau eta kontratuaren behin betiko esleipena Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, baita GHKko kontratatzailearen profilean ere.

## 11 JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzi jurisdikzioa izango da eskuduna kontratuaren prestaketa eta esleipenari dagozkion gatazkak konpontzeko, eta jurisdikzio zibila izango da eskuduna kontratuaren ondorioei, betetzeari eta amaitzeari buruz alderdien artean sortzen diren auziak ebazteko, SPKLTBaren 21. artikuluan ezartzen den bezala.





## II. KAPITULUA: KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

### 12 ESLEIPENAREN PROZEDURA ETA MODUA

Kontratu hau prozedura irekian esleituko da eta modu arruntean izapidetuko da, Kontrataziorako Barne Jarraibideen eta SPKLTBaren 157. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

### 13 LIZITATZAILEEN ESKURA JARRITAKO DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIOA

Kontratazio-organoak lizitatzailleen eskura jarriko du prozedura honi dagokion dokumentazio guztia. Hori ondokoek osatuko dute:

- Baldintza Administratibo Berezien Agiria eta dagozkion eranskinak.
- Baldintza Tekniko Berezien Agiria.

Dokumentazio hori lizitatzailleen eskura egongo da GHKren bulegoetan, Hernaniko Ibaiondo industrialdean, 27. zk.ko 3. solairuan.

### 14 GAITASUN-BALDINTZAK

1. GHKrekin kontratua egin ahal izango dute, banaka nahiz taldeka, jarduteko gaitasun osoa duten eta kontratatzeke debekurik ez duten pertsona natural edo juridiko espainiar nahiz atzeritarrek.

Ezingo dute lizitazioan parte hartu zehaztapen teknikoak edo kontratua prestatzeko dokumentuak lantzen parte hartu duten enpresek, parte-hartze horrek lehia mugatzea ekar badezake edo lizitazioan sartzen diren beste enpresen aldean pribilegiozko tratua badakarkie.

2. Enpresariak kontratuaren helburu den jarduera edo prestazioa gauzatzeko galdagarria den gaikuntza profesionala edo enpresa-gaikuntza izan beharko dute, halakorik bada.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izateko, ezinbestekoa izango da kontratuaren prestazioak haien estatutuen edo fundazio-arauen arabera berezkoak dituzten xedeetan, helburuaren edo esparruaren barruan egotea.

3. Nolanahi ere, GHKrekin kontratua egiteko egin ahal izango dute Europar Batasuneko estatuetakoen enpresa ez espainiarrek, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera kasuan kasuko prestazioa gauzatzeko gaituta badaude.



Hernani,

2015 ABU  
AGC 04

Idazkariak

Enpresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak kasuan kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunekoak ez diren estatuetakoa pertsona fisiko edo juridikoek jarduteko ahalmena frogatzeko, dagokion estatuan Espainiak duen diplomaziako misio iraunkorraren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBko 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

4. GHKrekin kontratua egin ahal izango dute horretarako aldi baterako eratzen diren enpresarien elkarteek. Aldi Baterako Enpresarien Elkarteetako kideek baldintza-agiri honetako 16. klausulan adierazitako kaudimen-baldintzak bete beharko dituzte, eta kide guztiak solidarioki kontratua betetzearen erantzule izango dira, irauten duen denbora guztian.

Ez da beharrezkoa izango aldi baterako enpresarien elkarteak eskritura publikoan formalizatzea kontratua esleitzen zaien arte, eta SPKLTBko 59. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da. Dena den, enpresari horiek eskaintza aurkeztu duten unetik aurrera, GHKren aurrean solidarioki behartuta geratuko dira lizitazio honetatik eta kontratutik eratortzen diren betebeharrak guztiak betetzera kontratua amaitu arte, eta pertsona bat izendatu beharko dute, lizitazioan eta kontratuaren gauzatzean zehar ordezkari edo ahalordedun gisa jardun dezan, kontratua amaitu arte sortzen diren eskubideak egikaritzeko eta betebeharrak betetzeko behar adinako ahalordearekin.

5. Lizitazioan parte hartzen duten enpresa guztiak baldintza-agiri honekin batera doan I. Eranskina bete eta aurkeztu beharko dute.

## 15 KONTSULTAK ETA AZALPENAK FORMULATZEA

Eskaintzak prestatzeko epean zehar, GHKk lizitatuzaileek idatziz aurkeztutako galderak eta azalpen-eskaerak artatuko ditu.

Kontsultak idatziz zuzendu beharko zaizkio GHKri lizitazioaren iragarkian agertzen den helbidera edo faxera. Lizitatuzaileek idatzian harremanetarako pertsona bat, helbidea, posta elektronikoa eta faxa adierazi beharko dituzte.

Erantzunak kontratatuzailearen profileen argitaratuko dira interesatu guztiak ikusi ditzaten, eta banaka jakinaraziko zaizkie, posta edo fax bidez, idatziz kontsulta egin duten lizitatuzaileei.



## 16 PROPOSAMENAK AURKEZTEA

### 16.1 Proposamenak aurkezteko lekua eta epea

Proposamenak GHKren bulegoetan aurkeztuko dira, Hernaniko Ibaiondo industrialdeko 25. zk.ko 3. solairuan, eta lizitazio honetan parte hartzeko, enpresen eskaintzak bulego horietan jaso behar dira epearen barruan; epe hori, gutxienez, lizitazioaren iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera igortzen denetik 40 egunekoa\* izango da, eta BOEn argitaratzen denetik 15 egunekoa, SPKLTBko 159. artikulua araberara.

\*52 eguneko epe orokorra, proposamenak aurkezteko, bost egun murriztu da, izan ere, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria bide elektronikoetatik lor daitezke, eta horri zazpi eguneko murrizketa gehitzen zaio, iragarkiak bide elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez prestatu eta bidaliko direlako, SPKLTBko 159.1. artikulua ezarritakoaren araberara.

1. Lizitazio hau, adierazi dugun bezala, EBAOn, BOEn eta GAOn iragartzeaz gain, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean iragarriko da, eta ondoko atari informatiko edo web orrialdetik eskuratu ahal izango da: <http://www.ghk.eus>. Leku berean egongo da baldintza administratiboen agiria ere, baita baldintza teknikoaren agiria ere.
2. Dokumentazioa postaz bidaltzen denean, enpresariak justifikatu egin behar du posta bulegoan zer egun eta ordutan egin duen bidalketa, eta kontratazio-organoari egun berean jakinarazi beharko dio, telex, fax edo telegrama bidez, eskaintza bidali duela. **Bai dokumentua bidaltzea bai bidalketa egin dela iragartzea**, iragarkian adierazitako aurkezteko epea amaitzeko **eguna eta ordua igaro aurretik egin behar dira**.
  - Eskaintzaren aurkezpena posta elektronikoz ere iragarri ahal izango da, baina kasu horretan iragarkiaren bidalketa baliozkoa izateko jasota egon beharko du mezua bidali eta jaso dela, komunikazioen eduki osoa eta modu fede-emaillean identifikatuta egon beharko dute bidaltzaileak eta hartzaileak. Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratu beharko da, eta hori espedienteari erantsiko zaio.
  - Bi baldintza horiek betetzen ez badira, proposamena ez da onartuko, GHK iragarkian zehaztutako epea amaitzeko data eta ordua igaro ondoren jasotzen badu. Dena den, adierazitako datatik hamar (10) egun natural igarotzen badira dokumentazioa jaso gabe, dokumentazio hori ez da inolaz ere onartuko, HAKLEOko 80.4. artikulua ezartzen duen bezala.
3. Parte hartzeko eskaera kontratazio-organoak adierazitako bulegoetan aurkezten denean, kontratazio-organoak eskaera hori erregistratuko du eta zigilatutako kopia bat itzuliko dio lizitatzailerari, aurkeztu izanaren frogagiri gisa. Kopia horretan lizitatzaileraren izena, kontratuaren xedearen izendapena eta proposamena aurkeztu den eguna eta ordua agertuko dira, **II. Eranskinean aurkeztutako ereduaren araberara**.



## 16.2 Dokumentazioak bete beharreko baldintzak

Lizitzaileek aurkezten duten dokumentazioak eskakizun eta baldintza hauek bete beharko ditu:

1. Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitzaileak inolako baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiri honetako eta kontratu izaera duten gainerako dokumentuetako klausulak, inolako salbuespenik gabe, eta bere ardurapean adierazten duela betetzen dituela sektore publikoarekin kontratua egiteko eskatzen diren baldintza guzti-guztiak. Beraz, eskaintzek emandako dokumentazioan eta eranskinetan aurreikusitako baldintza tekniko, ekonomiko, eragiketakoak edo bestelako guztiak beteko dituzte.

Lizitzaileek aurkeztutako dokumentuetako edozeinetan salbuespenen bat jartzen bada, edozein kasutan, salbuespenik ez dela jarri ulertuko da, eta kontratua kontratazio-organoak emandako dokumentazioan ezarritako moduan gauzatu beharko da, hori baita lizitazioaren oinarria.

2. Proposamenak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.
3. Informazio guztia paperean inprimatuta eta euskarri informatikoan (Word, Presto 8.8, Excel, mpp, pdf, dwg... fitxategietan) eman behar da, baldintza-agiri honetan adierazitako baldintzetan, halakorik bada. Bi euskarrietako informazioa bat ez badator, paperean inprimatuta aurkeztutako dokumentazioan ageri dena gailenduko da.

Eskaintzak makinaz idatzita edo beste modu batean mekanikoki edo informatikoki inprimatuta egongo dira, eta ez da onartuko eskuz idatzitako dokumenturik, ezta eskaintza baloratu ahal izateko baldintzak argi eta garbi ezagutzea eragozten duen hutsak, akatsak edo zuzenketak dituenik ere. Era berean, ez da onartuko HAKLEOko 84. artikuluan ezarritako kasuren batean dagoen proposamenik.

Zehazki, eskaintza ekonomikoa baldintza-agiri honekin batera ematen den dokumentu informatikoan aurkeztu beharko da, dokumentu horren formatua batere aldatu gabe.

4. Ez dira onartuko HAKLEOko 84. artikuluan ezarritako kasuetan dauden proposamenak, eta, beraz, atzera botako dira aztertu eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozen proposamenak, baldintza-agirietan ezarritako eredia funtsean aldatzen dutenak, zenbatekoan akats nabarmena dutenak edo, lizitzaileak berak aitortuta, bideraezin egiten dituen akatsak edo funtsik ezak dituztenak.
5. Prozeduran aurkezten diren eskaintzak prestatzeko dokumentazioa lantzearen kostu osoa lizitzaileen kontura izango da, eta ezingo dute inolako konpentsazio ekonomikorik erreklamatu esleipendun suertatzen ez badira.

2015 UZT. 22

Aprobado por Consejo de Administración

Hernani,

2015

ABU.  
AGO.

04



Idazkariak

6. Eskatzen den dokumentazio guztia kopia arrunt edo konpultsatutako kopia gisa aurkeztuko da, ardurapeko adierazpenak izan ezik. GHKk jatorrizko dokumentazioa edo Administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatutako edo legeztatutako kopia aurkezteko eskatuko dio lehenengo sailkatuari, kopia arrunta aurkeztu den kasuetan.

### 16.3 Proposamenak aurkezteko modua.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatuzaileek GHKko bulegoetan aurkeztu beharko dituzte, baldintza-agiri honen 16.1. klausulan ezarritako epearen barruan, hiru gutun-azal itxi, gero adieraziko den dokumentazioarekin, bertan adieraziz enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zein izaerarekin sinatzen duen, telefono eta fax zenbakiak, eta helbide elektronikoa, guztia argi irakurtzeko moduan. Gainera, gutun-azalean hau idatzi beharko da: **“San Marko Mankomunitateko hiri-hondakinak garraiatzeko zerbitzu-kontratuaren lizitazioa”**.

Gutun-azal bakoitzaren edukia, orri bereizi batean zerrendatuta egon beharko dena, dokumentu hauek osatuko dute:

#### 1. gutun-azala.- “DOKUMENTAZIO OROKORRA”

Gutun-azalean dokumentu hauek sartu beharko dira:

- a) Enpresariaren jarduteko gaitasuna eta, behar denean, ordekaritza, egiaztatuzko agiriak, HAKLEO 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Jarduteko gaitasuna kreditatzeko aurkeztuko diren dokumentuak:

- Lizitatuzailea pertsona juridikoa denean, eraketa-eskritura edo eraketa-agiria, Estatutuak edo fundazio-egintza, jarduera erregulatzen duten arauak jasoko dituztenak eta behar bezala inskribatuak, kasua denean, pertsona juridiko mota horri dagokion Erregistro publikoan.
- Proposamena sinatzen dutenak aldi baterako enpresa-elkartea (ABEE) eratzeko asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoak direnean, dokumentu pribatu bat aurkeztuko da, bertan adieraziz: lizitazioan batera aurkezteko borondatea eta esleipendun gertatuz gero kontratua aurrera eramateko ABEE eratzeko konpromisoa, enpresa bakoitzaren partaidetzaren portzentajea eta, kontratua amaitu arte, kontratutik eratorritako eskubideak egikaritzeko eta betebeharrak betetzeko ahalmena izango duen ordezkari edo ahalordedun bakar baten izendapena. Idazki hori sinatu beharko dute ABEE osatuko duten enpresa guztiek eta baita



ahalordedunak ere. Eskaintza bateratua aurkezten duen enpresa-elkarte bateko partaideek ezingo dute banako posiziorik aurkeztu eta ezingo dira beste aldi baterako elkarte batean edo beste enpresa batzuekin batera sartu. Debeku hori ez betetzeak, araua hautsi duen lizitatuak sinatutako eskaintza guztiak ez onartzea ekarriko du.

- Lizitatuak bere izenean diharduenean, parte-hartzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren edo bere estatuko agiri baliokidearen fotokopia aurkeztu beharko du.
- Besteren izenean agertzen direnek edo proposamenak sinatzen dituztenek, Nortasun Agiri Nazionalaren kopia eta horretarako behar besteko ahalordea aurkeztuko dituzte. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94. artikuluan aurreikusitakoaren arabera galdagarria denean.
- Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europar Batasuneko estatu batekoak, kokatuta dauden estatuko legediak agintzen duen Erregistroan inskribatuta daudela kreditatu beharko dute, edo zinpeko adierazpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aplikatzekoak diren xedapen komunitarioen arabera.
- Gainerako enpresari atzerritarrek Espainiak haien estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorrek edo enpresaren egoitzari dagokion Kontsularen Bulegoak egindako txostenaren bidez kreditatu beharko dute jarduteko gaitasuna. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute enpresa atzerritarren jatorrizko estatuak aukera ematen diela Espainiako enpresei hango administrazioarekin eta SPKLTBko 3. artikuluan aipatutako sektore publikoko kideko entitate, organismo edo erakundeekin egiten diren kontratazioetan funtsean modu berdintsuan parte hartzeko.

b) **Berariatzko eta ardurapeko adierazpena**, I. Eranskinean jasota dagoen ereduaren arabera. Adierazpen horretan aitortu beharko du **ez duela kontratatzeko debekurik** SPKLTBko 60. artikuluan ezarritakoaren arabera, espreski aipatuz artikulua horretako 1. apartatuko c) letrak dioena, hau da, ez duela zehapen irmorik jaso laneko segurtasun eta osasunaren arloan arau-hauste larria egiteagatik; eta beteta dituela zergen eta gizarte segurantzaren arloko betebeharrak, HAKLEOko 13. eta 14. artikuluetan aurreikusten diren irismenekin eta moduarekin.


c) **J.E.Z.-en** kontratuaren xedeari dagokion epigrafean **alta emanda dagoela kreditatzeko agiria**, alta aurkeztuz une horretako ekitaldikoa bada, edo azkeneko J.E.Z. ordainagiria aurkeztuz gainerako kasuetan, edozein kasutan, zerga horren matrikulan ez duela baja eman aitortzeko ardurapeko adierazpenarekin batera (I. Eranskina).

d) **Lizitatuak diren dokumentu eta datu konfidentzialak**. SPKLTBko 140. artikuluan aurreikusten duen modura, lizitatuak diren dokumentuak adierazpen osagarri baten bidez adierazi behar dute zein dokumentu administratibo eta tekniko eta zein datu hartu behar diren haien





Hernani,

2015 ABU. 04  
AGO.

ustez konfidentzialtzat, horrelakorik badago. Konfidentzialtzat jotako dokumentuan bertan ere argi eta garbi adierazi beharko da izaera hori (ganean, orri ertzean, edo beste edonola). Lizitatzailerek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat hartu ahal izango dira, horien berri hirugarren bati emateak enpresaren merkataritza-interes legitimoen kontra egin dezakeenean, arlo bereko enpresen arteko lehia leiala kaltetu dezakeenean edo Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritako debekuak urratzen dituenean. Adierazpen hori egiten ez bada, ulertu ahalko da aurkeztutako dokumentu edo datu guztiak edo batzuk, ezaugarrien arabera, ez direla konfidentzialak.

e) Gainera, entitate lizitatzailak jarraian adierazten diren **kaudimen-baldintzak** bete beharko ditu lehiaketa publikoan parte hartu ahal izateko:

e.1.) **Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa** SPKLTBko 75. artikulua arabera kreditatzen duen justifikazioa, dokumentu hauek aurkeztuta:

1. Negozioaren bolumen osoaren adierazpena eta, hala badagokio, kontratuaren xedari dagozkion jardueren esparruko negozioen bolumenari buruzkoa, gehienez eskura dauden azken hiru (3) ekitaldietakoak. Azken hiru (3) urteetako bakoitzean negozio bolumenaren batez bestekoa gutxienez lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren adinakoa izan dela kreditatu beharko da.

Urteko kontuek emaitza positiboak erakutsi beharko dituzte gutxienez aipatu ekitaldietako bitan.

2. **MILIOI BAT EUROKO (1.000.000 €) Erantzukizun Zibileko aseguru bat** dagoela frogatzen duen agiria. BTAko 7.2.1. klausula.

3. Enpresa esleipendunak Ingurumen **Erantzukizuneko aseguru bat kontratatu duela kreditatu beharko du. Horren muga aseguraturia gutxienez 1.000.000 €-koa (milioi bat euro) izango ezbehar bakoitzeko eta 1.000.000 €-koa (milioi bat euro) urte bakoitzeko.** Ingurumen Erantzukizunaren poliza horrek kontratu honen eta baldintza-agiri honetan jasotako alderdi guztiak estaliko ditu. Horrela, esleipendunak bere gain hartuko du zerbitzua gauzatzekoan Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa S.A.-ri edo hirugarrenei eragin diezazkieken kalte eta galeren erantzukizun osoa.

Justifikatutako arrazoiren batengatik, lizitatzaila edo talde bat osatzen duten lizitatzailleetako bat ez badago aipatu erreferentziak aurkezteko moduan, kontratazio-organoak bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa kreditatzeko baimena eman ahalko dio, egoki deritzon beste edozein dokumenturen bidez.

e.2.) **Kaudimen tekniko eta profesionala** SPKLTBko 78. artikulua **arabera** kreditatzen duen justifikazioa, dokumentu hauek aurkeztuta:

1. Azken hiru urteetako zerbitzu nagusien eta kaudimen tekniko edo profesionalaren zerranda, horien zenbatekoak, datak eta hartzailea, publiko edo pribatua, jasotzen dituen. Egindako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak igorritako edo bisatutako ziurtagirien bidez kreditatuko dira, hartzailea sektore publikoko entitate bat denean; hartzailea subjektu pribatu bat denean, honek igorritako ziurtagiri baten bidez edo, ziurtagiri hori ezean, enpresariaren adierazpen baten bidez; kasua balitz, ziurtagiri horiek zuzenean jakinaraziko dizkio agintaritzaren eskudunak kontratazio organoari.
2. Kasu guztietan, enpresaren urteko batez besteko langile-taldearen BERARIAZKO ARDURAPEKO ADIERAZPEN bat aurkeztuz; bertan, kasua balitz, enpleguan duen egonkortasun maila eta azken urteotako zuzendaritzako langile-taldea adieraziko dira, dagokion justifikazio-dokumentuekin batera.
3. Enpresariaren eta enpresako zuzendarien, bereziki, kontratua gauzatzearen ardura duten langileen titulu akademikoak eta profesionalak.
4. Langile guztiek eskaintzan proposatutako bitarteko mekanikoen baliokideekin merkantzien garraioan gutxienez 2 urteko esperientzia dutenaren konpromisoa kreditatu beharko da.
5. Lanak edo prestazioak behar bezala gauzatzeko erabiliko diren makina, material eta ekipo teknikoaren adierazpena; horiei buruz BTAaren 4.3. klausulak adierazten duen dokumentazioa aurkeztu behar da.
6. Baldintza Teknikoen Agiriko 6 eta 7. ataletan zehaztutako baldintza teknikoak betetzen direla justifikatzen duen dokumentua.
7. Lizitzaileek garraio publikoaren baimen administratiboa dutela kreditatu beharko dute, martxoaren 20ko FOM/734/2007 Aginduak zehazten duen bezala.
8. Lizitzaileek, kreditatu egin beharko dute Espainiar Estatutik kanpo egin behar diren garraioetarako **komunitate barneko lizentzia** dutela, Espainian Sustapen Ministerioak igortzen duena.

f) Proposamena **Aldi Baterako Enpresen Elkarte** batek aurkeztzen badu, hori osatzen duen pertsona bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena kreditatu beharko ditu. Kasu horretan, metatu egingo dira, egoki den moduan, elkartean sartutako talde bakoitzak kreditatutako ezaugarriak, eta ABEEko kide den talde bakoitzaren sailkapen indibidualak, baldintza-agiri honetan eskatzen den kaudimen/sailkapen orokorra egiaztatu ahal izateko.



Era berean, elkarteko kide guztien legezko ordezkariak sinatutako dokumentu bat aurkeztu beharko da, sinatzen duten enpresarien izenekin eta gorabeherekin. Dokumentu horretan adieraziko dute esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela, zenbateko partaidetza duen bakoitzak elkartean, eta gainera pertsona bat izendatuko dute kontratua indarrean den bitartean guztien ordezkari izan dadin administrazioaren aurrean.

Sailkapena nahitaezkoa denean, aldi baterako elkartean enpresari nazionalak eta Europar Batasuneko Estatu batekoak ez diren atzerritarrak, eta Europar Batasuneko Estatu batekoak diren atzerritarrak daudenean, lehenago bi multzoetakoek sailkapena kreditatu beharko dute, eta hirugarrenekoek kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala.

i) **Atzerriko enpresek**, kontratutik zuzenean edo zeharka etor litezkeen gorabehera guztietan Espainiako edozein arlotako epaitegi eta auzitegien mende jartzen direla eta, hala dagokionean, lizitatuarekin atzerrian egokitu dakioken foru juridikozionalari uko egiten diotela esaten duen adierazpena, baldintza-agiri honekin batera ematen den **III. Eranskin**ean jasotako ereduaren arabera.

Europar Batasunetik kanpoko enpresek kreditatu egin beharko dute Espainian sukurtsala zabalik dutela, eragiketatarako ahalorde edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan izena emanda.

Enpresa horiek aurkezten duten dokumentazioa era ofizialean gaztelaniara edo euskarara itzuliko da, HAKLEOko 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

h) Prozedura honetatik etorriko diren jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa, SPKLTBko 151.4. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako (**IV. Eranskina**).

Goiko a) eta c) letretan adierazitako baldintzak egiaztatu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuako Lizitatuarekin eta Sailkatutako Enpresen erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLTBko 84. artikuluan xedatutakoaren arabera. Aipatu ziurtagiriarekin batera, adierazitako egoerak ez direla aldatu ziurtatzen duen lizitatuarekin ardurapeko adierazpena ere gehitu beharko da. Adierazpen hori berriro egin beharko da, esleipendun gertatuz gero, kontratua formalizatzeko dokumentuan, kontratazio-organoari eragotzi gabe Kontratisten Erregistroan kontsulta bat egitea.

## **2. gutun-azala: PROPOSAMEN TEKNIKOA**

Proposamena memoria batean zehaztuko da. Memoria horretan justifikatuko da betetzen direla Baldintza Teknikoen Agiriaren 7.3. klausulan zehaztutako eskakizun

guztiak eta puntuazio teknikoa jasoko duten edukiak xehatuko dira (ikus baldintza-agiri honen 18. klausula).

Memoria horretan, lizitatuzaileek, ahalik eta zehatzen, garraio-zerbitzua eskaintzeko modua deskribatu beharko dute, eta zerbitzuaren beharrak betetzeko aurreikusitako baliabideak eta plangintza egokiak direla justifikatu beharko dute.

### **3. gutun-azala: PROPOSAMEN EKONOMIKOA**

Lizitatuzaileek baldintza-agiri honekin batera aurkeztutako **V. Eranskinean** jasotako ereduari egokitutako proposamen ekonomiko bat aurkeztu beharko dute.

Horri, memoria ekonomikoa gehituko zaio, eta bertan alderdi hauek zehaztuko dira:

Langileen unitate-kostuak aplikatu beharreko dagokion hitzarmen kolektiboaren kopiarekin eta langile bakoitzarentzat enpresa-kostuaren justifikazio-kalkuluarekin justifikatuko dira.

Ibilgailu eta makinen mantentzearen eta kontsumoen unitate-kostuak (lanaldiko, kilometroko edo egokitzat jotzen den unitatean), dagokion kalkulu xehatuarekin justifikatuko dira.

Aurrekontua xehatzerakoan kontratuari egotzitako kostu GUZTIAK xehatu behar dira: langileak, langileen estaldurak, inbertsioen amortizazioa (aplikagarria bada), ibilgailu, makina eta instalazioen mantentze eta kontsumo gastu arruntak, langileen jantziak, segurtasun eta osasun gastuak, aseguruak, administrazio eta zuzendaritza gastuak, eta eskaintzaren prezioan eragina duen beste edozein kostu.

Lizitatuzaileek kostu horien batukariari industria-irabaziaren portzentaje bat aplikatuko diote.

Gainera, kostuak izaeraren arabera xehatuko dira (langileak, mantentzea, erregaiak, amortizazioa, etab.), ekipoen amortizazioari zenbat dagokion adieraziz, gero erreferentzia bat izateko baldintza administratibo berezien agiri honen 8. atalean ezarritako prezioen berrikuspena aplikatzeko.

### **17 BEHIN-BEHINEKO BERMEAK ERATZEA**

Lizitazio honetan parte hartzeko beharrezko baldintza izango da, aurretik, kontratazio-organoarentzat, eskakizun eta baldintza hauek betetzen dituen behin-behineko bermea eratu dela kreditatzea:

1. Behin-behineko bermea lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren % 2ari dagokion zenbatekoan eratuko da, BEZ gabe.





2. Behin-behineko bermea honela eratu ahal izango da eta honela aurkeztu beharko da:


- a) Dirutan. Euskadiko Diruzaintza Nagusian aurkeztuko da edo, hala badagokio, dagokion entitatearen bulego baliokidean. Hartutako balioen ibilgetze-ziurtagiriak kontratazio-organoari aurkeztu behar zaizkie.
  - b) Jarduteko baimena duten banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, kredituko finantza-erakunde edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal baten bidez. Hori kontratazio-organoari aurkeztu behar zaio.
3. Behin-behineko berme gisa eratzen diren abalak, behartzeko behar adina ahalmen duten entitate abal-emaileko ahalordeek baimendu beharko dituzte.
4. Behin-behineko bermeak, aurkeztutako proposamenak kontratua esleitu arte mantentzeko erantzungo du. Esleipendun gertatzen den lizitatzailereantzat, bermeak erantzungo du, halaber, baldintza-agiri honen [20. klausulan](#) zerrendatzen den dokumentazioaren aurkezpenari lotutako betebeharrak betetzeko eta kontratua formalizatzeko unean.
5. Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da, eta lizitatzailerei itzuliko zaie, kontratua esleitu eta berehala. Dena den, esleipendunarena atxikita geratuko da behin betiko bermea eratzen den arte, eta konfiskatu egingo da esleipena baino lehen bere proposamena justifikatu gabe erretiratzen duten enpresena. Horrelakoetan, HAKEOren 62.1. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.
6. Esleipendun ateratzen denak aukera izango du bai behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betikoan aplikatzeko, bai behin betikoa oso-osorik eratzeko. Azken kasu horretan, behin-behineko bermea behin betikoa eratzen den une berean deuseztatuko da.

Espedientean behar adina justifikatu dira kontratu honetan behin-behineko bermea eskatzea beharrezkoa zela ulertzearen arrazoiak.

## 18 AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Lizitatzailerek aurkeztu beharreko dokumentazioa 16.3. klausulan adierazitako edukira egokitu beharko da, klausula horretan ezartzen diren esleipen-irizpideak baloratzeko eta puntuatzeko; horiek Baldintza Teknikoen Agiriaren 8. atalak jasotakoak izango dira.

Kontratua abantaila gehien dituen eskaintzari esleituko zaio, irizpide objektibo hauen arabera:



**1. IRIZPIDEA: PROPOSAMEN TEKNIKOA (MEMORIA TEKNIKOA: ZERBITZUA ESKAINTZEKO PROIEKTUA): 15 PUNTU ARTE (2. gutun-azala).**

Proposamen teknikoaren balorazioa honela egingo da:

1. Zerbitzuaren beharrak betetzeko aurreikusitako giza baliabideak egokiak izan behar dira. Pertsonen kopurua, egindako lanak eta horien kualifikazioak aurkeztuko dira.....**3 puntu arte**
2. Zerbitzuaren beharrak betetzeko aurreikusitako baliabide materialak egokiak izan behar dira.
  - Eskainitako trakzio-buruen, FAESeko 40 metro kuboko edukiontzia garraiatzeko erdi-atoiaren eta biondakina garraiatzeko oin mugikorren erdi-atoiaren kopuruari eta ezaugarri teknikoari buruzko informazioa emango da, ordezkoari buruzkoa ere bai, baldin badaude, eta ibilgailu bakoitzaren egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, eskainitako ekipoak teknikoki egokiak diren baloratzeko.....**6 puntu arte**
3. Memoria teknikoan jasotako lanen eta azterlanaren xehetasun mailaren plangintza eta antolaketa, BTaren 7.3. atalean deskribatutakoaren arabera.....**6 puntu arte**

**2. IRIZPIDEA: LIZITATZAILEAK PROPOSATUTA, KONTRATUAN SARTU BEHARREKO HOBEKUNTZAK: 5 PUNTU ARTE (2. gutun-azala).**

Lizitatzailerik baldintza-agiri honi buruz hobekuntzak proposatu ahalko dituzte, zerbitzuarekin lotutako baliabide materialak, giza baliabideak edo egokitutako josten dituenak eskainiz, proposatzen duen hobekuntzaren alderdi teknikoak, ekonomikoak eta justifikazioak azalduz, zerrendatuz eta balorizatuz.

Horrek ez du inolaz ere kostu gehikuntzarik ekarriko GHKrentzat, eta lizitatzailerik aurkeztu duen eskaintzaren barruan egongo da.

Hobekuntza horiek **5 puntu arte** baloratuko dira, GHKko zerbitzu teknikoaren irizpidearen eta balorazioaren arabera.

**3. IRIZPIDEA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA: 80 PUNTU ARTE (3. gutun-azala).**

San Marko Mankomunitatetik garraiatutako hondakin-tona bakoitzeko lau prezio eta garraiatutako tona eta km bakoitzeko prezio bat aurkeztu beharko dira, baldintza teknikoaren agiriaren 8.3. puntuan zehazten den bezala:



NORAKOA SM-TIK	GARRAJATUTAKO TONA BAKOITZEKO PREZIOA
Gipuzkoako lurralde barruko garraioa	1. PREZIOA
Funesko konpostaje-instalazioa (Nafarroa)	2. PREZIOA
LOREKI (Frantzia) konpostaje-instalazioa	3. PREZIOA
S.O.T.S. – Bartzelona konpostaje-instalazioa	4. PREZIOA
HTNren instalazioa Caparrosen (Nafarroa)	5. PREZIOA
Errefusaren edo biohondakinaren garraioaren prezioa * Tn * km-ak	6. PREZIOA

San Marko-→Lapatx: 50km

San Marko→Loreki: 54km San Marko→ S.O.T.S.: 311 eta 480km artean, ibilbidearen arabera

San Marko→Epele: 61km San Marko→ Funes: 150km San Marko→ Caparroso: 142km

Horrela ziurtatu egiten da hondakinen norakoa aldatzen bada, erraz kalkulatu delako delako eraberraren beharrezko zenbaterako berria.

Onartutako eskaintzei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioen kalkulua, ondoko koadroaren eta puntuaren banaketaren arabera egingo da, hau da, eskatutako eta eskainitako **PREZIO** bakoitzari puntuazio bat dagokio, GHKrentzako aurkezpen onuragarrienaren ordenaren arabera, eskatutako norako eta prezio bakoitzerako:

	1. prezioa	2. prezioa	3. prezioa	4. prezioa	5. prezioa	6. prezioa
<b>Gehienezko puntuazioa <math>P_{i\max}</math></b>	50	11	4	2	11	2

Erreferentziazko tonak, norako bakoitzerako lotesleak ez direnak gutxi gorabehera ondokoak dira:

1. prezioa	2. prezioa	3. prezioa	4. prezioa	5. prezioa	6. prezioa
GIPUZKOAKO HONDAKINDEGIAK ETA INSTALAZIOAK	FUNES	LOREKI	S.O.T.S.- Bartzelona	HTN	ALDAKORRA
	2.500	2.500		2.500	

Lizitazioaren gehieneko prezioak, kasu bakoitzerako, ondokoak dira:

1. prezioa	2. prezioa	3. prezioa	4. prezioa	5. prezioa	6. prezioa
GIPUZKOAKO HONDAKINDEGIAK ETA INSTALAZIOAK	FUNES	LOREKI	S.O.T.S.- Bartzelona	HTN	ALDAKORRA
12€/tn	17€/tn	9€/tn	25€/tn	17€/tn	0,13€/tn/kmko

Onartutako proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioen kalkulua, eskaintako unitate-prezio bakoitzarengatik lortutako puntuazio partzialen batuketa izango da. Puntuazio partzialak ( $P_i$ ) haien arabera egingo dira, interpolazio linealaren bitartez,  $P_{imax}$  (baja maximoa, puntuazio maximoa) eta  $P_{imin}$  (baja zero, puntuazioa zero) bi puntuak zehaztutako zuzenaren arabera, eta zuzen horren segmentuaren barruan, horiek mugatua eskaintako unitate-prezio bakoitzerako.

Eskaintzetan "prezioa" elementua alderatzeko, soil-soilik bakoitzaren prezio garbia (BEZ gabe) hartuko da kontuan.

Aipatutako puntuak ondokoak dira:

$P_{imax}$  – Eskaintza ekonomikoenari dagokiona (baja maximoa), zeinari puntuazio bat emango zaion, maximoa:  $P_{imax}$  puntu eskaintako unitate-prezio bakoitzerako (aurreko koadroan jasotako puntuazio maximoaren arabera)

$P_{imin}$  – Unitate-prezio bakoitzaren lizitazioaren oinarritzko aurrekontuari dagokiona; horri 0 puntu emango zaizkio puntuazio partzial bakoitzean.





$$P_i = (P_{\text{imax}} \times B_i) / B_{\text{imax}}$$

( $B_{\text{imax}}$  = unitate-prezio bakoitzaren baja maximoa)

Bajatzat ( $B_i$ ) jotzen da lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko tartea, eskaintako unitate-prezio bakoitzerako lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaz zatituta.

$P_i$  da eskaintza egiten duenari dagokion puntuazioa, eskaintako unitate-prezio bakoitzean formula aplikatu ondoren.

Horrenbestez, puntuazioa guztira, eskaintza aurkezten duen bakoitzak lortutako puntuazio partzialen batuketari dagokiona izango da:

$$P = \sum P_i$$

Ez dira kontuan hartuko lizitazioaren oinarritzko prezio bakoitza gainditzen duten unitate-prezioak dituen proposamen ekonomikoa barne hartzen duten eskaintzak.

## 19 PROPOSAMEN NEURRIGABEAK EDO OHIZ KANPOKOAK

1. Hasiera batean, proposamen bat ohiz kanpokotzat edo neurrigabetzat joko da, baldin eta bere beherapen portzentajeak % 20 edo gehiagoz gainditzen badu onartutako proposamen guztien beherapen-portzentajeen batez besteko aritmetikoa.
2. Lizitzaile bakoitzaren proposamena kalkulatzeko 1, 2, 3, 4, 5 eta 6. prezioetarako kontuan hartutako urteko zenbatekoak lizitzaileen eskaintako unitate-prezio bakoitzarekin biderkatuko dira.
3. Kontratu honen xedeari dagokionez ohiz kanpokoak edo neurrigabeak diren eskaintzak jasotzen badira, Kontratazio Mahaiak, horiek baztertu aurretik, horiek aurkeztu dituztenei idatziz eskatuko dizkie egoki deritzen azalpenak eskaintzaren osatzen duen guztiari buruz, eta eduki hori egiaztatuko du ematen dizkieten azalpenak kontuan hartuz. Horretarako lizitzaileei hiru (3) eguneko epea emango die, aipatu azalpenen eskaera jasotzen denetik hasita.

Kontratazio Mahaiak kontuan hartu ahal izango ditu justifikazio objektiboak, esaterako, eraikuntza edo fabrikazio metodoaren ekonomia, aukeratutako konponbide teknikoak, edo lizitzaileak kontratua gauzatzeko unean izango dituen baldintza abantailatsuak.

Edonola ere, ohikoak baino eskaintza baxuagoak aurkezten badira, dagokion lizitzaileak eskaintako justifikazioaren arabera, GHKk baztertu egin ahal izango ditu.



## 20 PROPOSAMENAK IREKITZEA, ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA.

### 20.1. Proposamenak irekitzea.

GHKko zerbitzu teknikoek, lehendabizi, 1. gutunazala ireki eta bertan dauden dokumentuak kalifikatuko dituzte. Zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak antzematen badituzte, lizitatzailari gehienez hiru laneguneko epea emango diote horiek zuzen ditzan.

Dokumentazioa kalifikatzen denean eta, hala badagokio, bertan antzemandako akats edo omisioak zuzendu ondoren, 2. gutun-azala irekiko da, proposamen teknikoa duena. Proposamen hori kontratazio mahaiak izendatutako adituen talde batek aztertu eta baloratuko du.

3. gutun-azala, proposamen ekonomikoa duena, publikoki irekiko da GHKren bulegoetan, Hernaniko Ibaiondo industrialdeko Orbegozo eraikineko 27. zk.ko 3. solairuan. Proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publiko horretan GHKko kontratazio mahaiak parte hartuko du, eta bertaratzen diren lizitatzailari beren proposamen teknikoen balorazioaren emaitza emango zaie.

### 20.2. Eskaintzak sailkatzea.

Hurrengo egunetan, zerbitzu teknikoek proposamenak aztertu eta baloratuko dituzte, eta Kontratazio Mahaiari txosten bat igorriko diote. Kontratazio Mahaiak, arrazoiak emanez, GHKko Administrazio Kontseiluarentzat esleipen-proposamena egingo du. Kontratazio Mahaiak, proposamena egin aurretik, behar dituen txosten tekniko eta juridikoak eskatu beharko ditu kontratazio-organoari formulatzeko eskaintza-sailkapena egiteko.

Kontratazio mahaiak egindako esleipen proposamenak dagokion txosten juridikoa jasoko du.

Kontratazio-organoak beheranzko ordenan sailkatuko ditu aurkeztutako eta neurrigabe edo ohiz kanpokotzat jo ez diren proposamenak, horrela aurreikusi bada baldintza teknikoen agirian. Sailkapen hori egiteko, baldintza-agirian edo iragarkian adierazitako esleipen-irizpideak izango ditu kontuan, eta horretarako egoki deritzen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, SPKLTBko 151. artikuluan ezartzen duen bezala.

**Kontratazio-organoak ekonomikoki eskaintza onena egin duen lizitatzailari eskatuko dio, hamar (10) egun balioduneko epean, eskaera jaso eta biharamunetik zenbatuta, esleipen-prezioaren % 5eko behin betiko bermea jarri duela eta tributuen eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak beteta dituela egiaztatzeko dokumentazioa aurkez dezan** edo kontratazio-organoari baimena eman





2015. UZT. 22 (e)an onartua  
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 ABU. AGO. 04



Idazkaririk,

diezaion zuzenean lor ditzan egiaztagiria. Ziurtagiri horiek guztiak bitarteko elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bidez eman daitezke, baldintza-agirietan bestelakorik ezarri ezean.

Eskakizun hori adierazitako epean bete ezean, lizitatzailleak bere eskaintzari uko egin diola ulertuko da, eta kasu horretan hurrengo lizitatzailleari eskatuko zaio dokumentazio berbera, eskaintzen sailkapeneko ordenari jarraituz.

### 20.3. Esleipena.

#### **Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egun balioduneko epean esleitu beharko du kontratua.**

Lizitazioa ezingo da esleitu gabe utzi, baldintza-agiriko irizpideen arabera onargarri den eskaintza edo proposamenik aurkeztu bada.

Esleipena arrazoitua izango da, hautagaiei eta lizitatzaillei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

### 20.4. Esleipena jakinaraztea.

Jakinarazpenak, kasu guztietan, behar adinako informazioa eman behar du; zehazki, puntu hauek adieraziko ditu:

- Baztertutako hautagaiei buruz, horien hautagaitza baztertu izanaren arrazoiaren azalpen laburtua.
- Esleipen-prozeduratik baztertu diren lizitatzaillei dagokienez, horien eskaintza onartu ez izanaren arrazoiaren azalpen laburtua.
- Edonola ere, esleipendunaren izena eta hautatu den eskaintzaren ezaugarriak eta abantailak, onartutako gainerako lizitatzailleek aurkeztu dituzten eskaintzen aldean lehenetsuna emateko erabakigarri izan direnak.

Esleipenaren arrazoiari konfidentzialtasun-salbuespena aplikatuko zaie, SPKLTBko 153. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jakinarazpena egiteko, hartzaileak jaso izana agerian utz dezakeen edozein bide erabil daiteke. Zehazki, lizitatzailleek eskaintza aurkezterakoan baldintza-agiri honen [IV. Eranskinean](#) adierazitako helbide elektronikoen bidez egin daiteke, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrak zerbitzu publikoetara bide elektronikoz sartzeari buruzkoak, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala ere, jakinarazpena baztertu egin dela - azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4. artikuluan aurreikusitako ondorioekin- ulertzeko epea bost (5) egunekoa izango da.

Dena dela, kontratazio-organoak aukera dezake esleipenari buruzko hainbat datu ez jakinaraztea, baldin eta uste badu, espedientean behar bezala arrazoituz,



Hernani,

2015 ABU. 04  
AGO. 04

Mazkarak,

informazio hori zabaltzea eragozpen izan daitekeela arau bat aplikatzeko, edo interes publikoaren aurkakoa izan daitekeela, edo enpresa publiko edo pribatuen legezko merkataritza-interesak edo beren arteko lehia leiala kalte ditzakeela.

### 20.5. Esleipena ebaztea.

Behin-behineko esleipendunak beharrezko baldintzak betetzen ez dituelako kontratua ezin denean behin betiko esleitu, beste deialdi bat egin aurretik Administrazio Kontseiluak behin-behineko esleipena egin diezaioke haren ondorengo lizitatuileari edo lizitatuileei, horien eskaintzak sailkatuta dauden hurrenkeran, betiere, hori egin daitekeenean eta esleipendun berria ados dagoenean. Horrela eginez gero, esleipendun berriari hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio baldintza-agiri honen [20.2](#) eta [21](#). klausuletan adierazitako dokumentazioa aurkez dezan.

### 20.6 Dokumentazioa zaintzea

Behin kontratua esleituta dagoenean, errekursoak aurkezteko epea errekurtsorik jarri gabe amaitu bada, proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesatuen esku geldituko da. Dokumentazioa erretiratzeko eskaera idatziz egin beharko da. Ez badute dokumentazioa erretiratzen epe hori igaro eta hurrengo hirü hilabeteetan, kontratazio-organoak ez du zaintzen jarraitzeko obligaziorik izango, behin-behineko bermea justifikatzen duten dokumentuak izan ezik, horiek mantendu egingo baitira interesatuei entregatzeko.

## 21 ESLEIPENDUNAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Esleipendunak, kontratua formalizatu baino lehen, ondoko dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- baldintza-agiri honetako 16.3. atalean eskatutako aseguru-polizaren ordainagiri eguneratuaren benetako kopia.
- Lizitazio-iragarkiak ordaindu izanaren frogagiria.
- Hala dagokionean, ABEE legez eratu izana kreditatzeko agiria.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan ez duela baja eman aitortzeko ardurapeko adierazpena.

## 22 BEHIN BETIKO BERMEA

Baldintza-agiri honetako [17](#). klausulan adierazten den bezala, eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatuileak **esleipen-prezioaren %5eko** behin betiko bermea eratu beharko du kontratazio-organoaren alde, Balio Erantsiaren gaineko





Zerga kenduta, SPKLTBko 95.2. artikulua araberan, kontratutik sortutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko.

- Behin betiko bermeak SPKLTBko 100. artikuluan ezarritako kontzeptuak bermatu beharko ditu.
- Berme hori SPKLTBko 96. artikuluan ezarritako bideetako edozeinen bitartez eratu ahal izango da. Baliabide elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bidez egiaztatu ahal izango da bermea eratu izana. Baldintza hori betetzen ez bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, GHK ez dio esleipenik emango eta SPKLTBko 151.2. artikuluko azkeneko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.
- Esleipendunari zigorrak ezartzen bazaizkie kontratuko betebeharrak ez betetzeagatik, kontratazio-organoak bermearen aurka jo ahal izango du askatasun osoz, eta eskubide hori ez da etenda geratuko esleipendunak jar litzakeen erreklamazio edo errekursoak bideratzen ari diren bitartean.
- Esleipendunak kontratuan ezarritako betebeharren bat bete ez duelako, bermearen kontra joko balitz, esleipendunak hamabost (15) egun naturaleko epean (bermea gauzatzen den egunetik zenbatuta) birjarri edo handitu beharko du, dagokion muntan.
- Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, bermea berregokitu egin beharko da, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Enpresariak hamabost laneguneko epea izango du, aldatzeko erabakia jakinarazten diotenetik hasita, bermea egokitzeko.
- Bermea SPKLTBko 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, berme-epea igaro ondoren eta esleipendunak legezko betebeharrak guztiak bete dituenean.
- Behin betiko bermea urtebeterako geratuko da lotuta, GHK kontratuaren harrera-akta sinatzen duenetik kontatuta, baldintza-agiri honetako 26. klausulan jasotakoaren arabera.
- Klausula honetan jasotako xedapenen bat ez betetzea nahikoa izango da kontratua GHKren alde suntsiarazteko, betiere ez betetze hori kontratistari egotz badakioke.



### 23 KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizazioaren bidez burutuko da.

### 23.1 Kontratua formalizatzea.

1. Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, SPKLTBko 156. artikuluan aurreikusitako eran.
2. Kontratuak errekurtsio berezia jaso dezakeenez kontratazio alorrean SPKLTBko 40.1. artikulua araber, formalizazioa ezingo da egin esleipenaren jakinarazpena lizitzaile eta hautagaiei igortzen denetik zenbatzen hasita hamar lanegun igaro baino lehen.
3. Kontratazio-organoak esleipendunari kontratua formalizatzeko eskatuko dio eskakizuna jaso duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita gehienez bost egun naturaleko epean, behin aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro bada kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik aurkeztu gabe. Gauza bera egingo du errekurtsioa ebazteko eskumena duen organoak etetea kentzen badu.
4. Kontratua formalizatzeko dokumentuak SPKLTBko 26. artikuluan eta HAKLEOko 71. artikuluan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu.
5. Kontratua sinatzearekin bat, esleipendunak Baldintza Administratibo Berezien Agiria, Baldintza Teknikoen Agiria eta esleipendunak egindako eskaintza sinatu beharko ditu eta kontratuari gehituko zaizkio eranskin gisa, HAKLEOko 71. artikuluan ezarritakoari jarraiki.
6. Esleipendunak eskatzen badu, berak ordainduta, kontratua eskritura publikoan formalizatzea, eskrituraren kopia soila eman beharko dio kontratazio-organoari.

### 23.2 Ez formalizatzearen eraginak

1. Esleipendunari egozteko arrazoiengatik, kontratua ezin bada formalizatu aurreko atalean aurreikusitako epean, SPKLTBko 156. 4. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.
2. Epearen barruan ez formalizatzeko arrazoia kontratazio-organoari egoztekoa bada, esleipendunak kalte-ordaina eskatu ahal izango du atzerapenak ekar liezazkiokeen kalte-galerengatik.

## III. KAPITULUA: ALDERDIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

### 24 KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK

Kontratua gauzatzean, baldintza-agirian aitortzen zaizkion eskubideak izango ditu kontratistak, bereziki, jarraian zehazten direnak:





### 24.1 Kontraprestazioa jasotzeko eskubidea.

Kontratistak itundutako prezioa kobratzeko eskubidea izango du, baldintza-agiri honetan eta kontratuari buruzko gainerako dokumentazioan aurreikusitako moduan, kontratua bere arrisku eta menturara exekutatzearen ordainetan.

### 24.2 Kontratua lagatzea

1. Debehatuta dago kontratutik sortutako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati lagatzea, kontratazio-organoak aldez aurretik, berariaz eta idatziz baimena eman ezean, eta kontratazio-organoak baimena ukatu ahal izango du lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak erabakigarriak izan badira kontratua esleitzeko.
2. Aurrekoari kalterik egin gabe, kontratuaren lagapena baimentzeko, nahitaezko baldintza izango da kontratuaren ehuneko hogeia behintzat exekutatuta egotea eta lagapen-hartzaileak baldintza-agiri honetan lizitatzailerei eskatzen zaizkien gaitasun eta kaudimeneko baldintza berak izatea.
3. Baimendu eta eskritura publikoan formalizatu ondoren, lagapen-hartzailea subrogatuta geratuko da lagatzailearen eskubide eta betebehar guztietan.

### 24.3 Azpikontratatzea.

Kontratuaren prestazioak Administrazio Kontseiluak aurretik berariaz eta idatziz baimendu ondoren besterik ezin izango dira azpikontratatu, eta ezinbestekoa izango da azpikontratistak GHKrekin kontratatzeke legeko baldintzak eta baldintza-agiri honetan eskatzen direnak betetzea, eskatutako sailkapena kreditatzea eta baldintza-agiri honetan aurreikusten den bere gain hartutako baliabideak atxikitzeke betebeharra betetzeko konpromisoa hartzea. Hori guztia, azpikontratazioaren xede den prestazioari edo prestazioei buruzkoa edota horiei dagokiena den edozein kontutan.

## 25 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da.

Kontratistaren betebeharrak izango dira, baldintza teknikoan agirian jasotakoez gain, jarraian adierazten direnak:

- Zerbitzua ezarritako epean eskaintzea.
- Bere proposamenean jasotako giza baliabideak kontratuaren exekuzioari atxikitzea.
- Baldintza-agiri honetan eskatutako aseguru-polizak kontratatzea.
- Behin betiko bermea eratzeta.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015 UZT. 22


..... (e)an onartua  
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015

ABU  
AGO

04



Idazkaria

- Lizitazioaren eta esleipenaren iragarkiei dagozkien gastuak ordaintzea.
- Kontratu honen xede diren prestazioetan erabiltzen dituen langileei dagokienez, laneko legediaren eta Gizarte Segurantzaren alorrean indarrean dauden xedapenak betetzea.
- Kontratuaren xedea burutzeko beharrezkoak diren ikus-onetsiak, baimen eta lizentziak, dokumentuak edo nolanhiko informazioa, bai ofiziala bai pribatua, lortzea.
- Kontratuaren xedea burutzerakoan sortzen diren gastu guztiak, baita fiskalak ere, indarrean dauden xedapenen arabera.
- GHKri nahiz hirugarrenei, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren eragiketen ondorioz sortzen zaizkien kalte-galerak ordaintzea.
- Lan eta gizarte arau guztiak betetzea, bereziki Gizarte Segurantzari, Segurtasun eta Higieneari eta Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoak.
- Kontratatistak, izaera pertsonala duten datuak eskuratuz gero, Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikotik eta hau garatzen duen arauditik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu.
- Lehiaketa amaitzean esleipendunak GHKri itzuli beharko dizkio honen jabetzako garraiobideak, mantentze eta funtzionamendu egoera onenean, eta esleipendunaren kontura izango dira kontratuak dirauen bitartean eta hura bukatzean sor daitezkeen mantentze, aseguru, IAT eta bestelako gastu guztiak, baita horiek GHKra itzultzeko erabilgarri uzteko gerta daitezkeen guztiak ere.

### 25.1 Beharrezko langileak.

Baldintza Teknikoen Agiriko 4.1. klausulak ezartzen duen bezala, esleipendunak une oro zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren langileak eduki beharko ditu, Baldintza Teknikoen Agiri honetan eta aurkeztutako eskaintzan deskribatutako arau eta zehaztapenen arabera. Kontratatistak, bere langile-beharrak ezartzerakoan kontuan hartuko ditu nahitaez kontratu honetarako subrogatu beharreko langileak, eta hori hurrengo 25.2. atalean zehazten da.

Kontratasta esleipendunak, kontratuan zehar, ezingo du langile-taldea handitu modu egonkorrean, aurretik GHKren idatzizko baimena ez badu. Horretarako, aurretik eskaera formal bat aurkeztu beharko du, dagokion justifikazioarekin batera; hori GHKko zerbitzu teknikoek baloratuko dute eta eskaera hori onartu edo ukatu ahal izango dute. Horrenbestez, langileak hartzen badira, hori aldi baterako izango da, behar puntualak edo aparteko gorabeherak estaltzeko, beti ere esleipendunaren kontura, eta honek hartuko ditu bere gain langile horiek hartzeak dakartzan kostuan, eta hala badagokio, kontratuak deuseztatzeak, kaleratzeak eta abarrek eragindakoak.

Horrenbestez, lizitatzailleek beren proposamenetan kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean egiteko beharrezko langileen aurreikuspenaren proposamena aurkeztu beharko dute, baita langileak ordezkatzeko plan bat ere.



Zerbitzuaren puru eta arduradun nagusi gisa pertsona bat agertu behar da. Bera arduratuko da esleitutako garraio-zerbitzua antolatzeaz eta ikuskatzeaz, eta enpresa esleipendunaren egiturakoa izan beharko da. Berari dagokionez, aipatu Baldintza Teknikoen Agiriko 4. klausulan adierazitako guztia aplikatuko da.

GHKk ez du harreman juridiko, laneko edo beste edozein motako harremanik izango enpresa esleipendunaren langileekin kontratuak indarrean dirauen bitartean, ezta hori amaitzen denean ere, eta enpresa esleipendunaren kontura izango dira goi garraioaren kontratu edo zerbitzu hau amaitzearen ondorioz sortzen diren betebeharrak, kalte-ordainaketa eta erantzukizun guztiak.

### 25.2 Langileak subrogatzea.

Bide-garbiketaren hitzarmenak, 9. artikuluan, hau ezartzen du: "Kontrata bat bukatzen, galtzen, desegiten, lagatzen edo erreskatatzen den guztietan, eta, era berean, jarduera egiten duten erakundeek, pertsona fisikoek edo juridikoek arteko ordezkapena dakarren bestelako irudi edo modalitate bat bukatzen, galtzen, desegiten, lagatzen edo erreskatatzen den guztietan, zerbitzua uzten duen enpresako langileak zerbitzua egingo duen enpresa edo erakunde publiko berrian sartuko dira, eta enpresa edo erakunde berri horrek langileek ordezkaturako enpresan zituzten eskubideei eta betebeharrei eutsi beharko dizkie." Hitzarmen hori aplikagarria zaie hondakinak garraiatzeko zerbitzu-kontratuei, 2012ko maiatzaren 2an emandako 971/2012 Erregutze Errekurtsoan EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren lan-arloko salaren epaian oinarrituta.

SPKLTBko 120. artikulua arabera, lizitatuzaileei jakinarazten zaizkie erreferentziazko hitzarmen kolektiboan aurreikusitako subrogazioak eragiten dien langileen kontratuen baldintzak baldintza-agiri honen [VI. Eranskinean](#) jasotakoak izango direla.

### 25.3 Konfidentzialtasuna

GHKk kontratistari kontratua gauzatzeko edozein euskarritan emandako informazioa, dokumentazioa, planoak, fitxategiak edo zehaztapenak konfidentzialtzat jo beharko ditu kontratistak, eta ezingo dira argitaratu, zabaldu edo kontratua gauzatzeko ez den beste xede baterako erabili, komunikatu edo hirugarrenei lagatu, ez osorik ez partzialki.

Kontratistak, kontratuko prestazioak burutzeko emango zaizkion dokumentuak leialki eta arduraz zaintzeko betebeharrak hartzen du bere gain, erabilitako euskarria edozein delarik ere, eta horrekin batera, dokumentuak eta horiek jasotzen duten informazioa, kontratuaren exekuziotik at dauden pertsonengana ez iristeko konpromisoa hartzen du.

Kontratistak bere zerbitzura dauden langileei kontratu honen bidez bereganatzen dituen erreserba eta isiltasun eginbeharrei buruz jakinarazteko betebeharrak hartzen du bere gain.

## 26 KONTRATAZIO-ORGANOAREN ESKUBIDEAK (GHK-KO ADMINISTRAZIO KONTSEILUA)

Baldintza-agirian eta kontratuaren gainerako dokumentazioan eta aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritako mugen barruan eta bertan adierazitako baldintza eta ondorioekin, jarraian azaltzen diren eskubideak izango ditu GHKk.

Edozein kasutan, GHKk hartu ahal izango ditu kontratuaren xede den exekuzioa etetea eragozteko beharrezkoak diren neurri guztiak, jarraipena bermatu ahal izateko, batez ere, kontratistaren ez-betetzea izan denean, eta eskubidea izango du kontratistari ordainarazteko egiten dituen gastuak eta kostuak eta, kasua bada, gastu eta kostu horiek kontratistari edozein kontzepturengatik zor dizkion zenbatekoekin konpentsatzeko. Hori dena, baldintza-agiri honetan kontratua suntsiarazteari buruz aurreikusitakoa eragotzi gabe.

### 26.1 Kontratua aldatzea

GHKk kontratua aldatu ahal izango du interes publikoengatik eta behar bezala justifikatutako ustekabeko kausei aurre egiteko.

Kontratua aldatu ahal izango da, halaber, SPKLTBko107. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, baldin eta horrekin ez badira aldatzen lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak.

Aldaketa posible horiek nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

Kontratuan egindako aldaketa idatziz formalizatu beharko da, SPKLTBko 107. artikuluan aurreikusitako moduan.


### 26.2 Aplikatzekoa den araudian aitortutako eskubideak

Plegu honetan eta kontratuaren gainerako dokumentazioan aitortzen zaizkion eskubideez gain, aplikatzekoa den araudiak aitortzen dizkion gainerako guztiak ere izango ditu GHK-k.

## 27 KONTRATAZIO-ORGANOAREN BETEBEHARRAK

GHKk Plegu honetatik, kontratuaren gainerako dokumentaziotik eta indarrean dagoen arauditik sortzen zaizkion betebeharrak guztiak beteko ditu.



**IV. KAPITULUA: KONTRATUA GAUZATZEAREN GARAPENA ETA JARRAIPENA****28 ZERBITZUAK ESKAINTZEN HASTEAN****28.1 Lanak hastea**

Kontratista zerbitzuak eskaintzen hasi beharko da kontratua formalizatzen den unetik aurrera.

**29 LAN-PROGRAMA.**

1. Kontratatistak bere eskaintzan aurkeztutako zerbitzuen prestazioaren plangintza zehaztu beharko du Lan-programaren bidez. Hori GHKri aurkeztu beharko dio kontratua formalizatzen denetik hamar (10) egun naturaleko epean gehienez.
2. GHKk Lan-programa onartu beharko du aurkezten den egunetik zenbatuta hamar (10) eguneko epearen barruan; kasua bada, sartu behar diren aldaketak eta baldintzak ere onartu beharko ditu, beti ere kontratuaren edukiaren aurka ez badoaz.
3. Kontratatistak aurkeztutako Lan-programa ez bada egokitzen BTAn jasotako baldintzetara eta kontratuaren gainerako dokumentuetara, edo beharrezkoa balitz aldaketak egitea, GHKk kontratatistari eskatuko dio bost (5) eguneko epean zuzenketak egiteko eta GHKk egoki deritzen baldintzak sartzeko aurkeztutako Lan-programan, beti ere kontratuaren klausulen aurka ez badoaz. Kasu horretan, GHKk bost (5) eguneko beste epe bat izango du, aurkezten denetik zenbatuta, Lan-programa ikuskatzeko eta onartzeko.
2. Behin GHKk Lan-programa onartzen duenean, bi alderdiek formalizatutako kontratuari Eranskin gisa atxikiko zaio.
3. Lan-programak kontratatutako zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren lanen programa oso, zehaztu eta arrazoitu bat eduki beharko du.


Kontratatistak eguneratu egin beharko du Lan-programa kontratuaren baldintzak aldatzen badira, eta hori ezarri edo eguneratu beharko du, beharrezkoa bada.

GHKk erabaki ahal izango du zerbitzuen ordainketak ez egitea kontratatistak lan-programa behar bezala aurkeztu arte, eta ez du berandutza-interesak jasotzeko eskubiderik izango faktura horiek berandu ordaintzeagatik, kasua bada.

**30 LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA**

Kontratuaren kontratatista esleipendunak GHKren aurrean Laneko Segurtasun eta Osasun arloko betebeharrak betetzen dituela kreditatu beharko du.

Idazkaria,



Enpresak kontratuaren gauzatzearen zati bat azpikontratatzan badu, azpikontratei beharrezkoak diren betebeharren justifikazioak eskatu beharko dizkie eta horiek GHKko prebentzio-zerbitzuari eman.

Lanak ezingo dira hasi GHKko prebentzio-zerbitzuaren baimenik gabe, beharrezkoa den dokumentazioa egiaztatu ondoren.

Lanak egiten ari zirela langileei edozein motatako istripu edo kalteren bat gertatuz gero, indarrean dauden arauetan xedatutakoa beteko du bere ardurapean, eta horrek ez dio inolaz ere GHKri eragingo.

### 31 LANEN ZUZENDARITZA.

Kontratatistak GHKk onartutako Lan-programaren arabera egingo ditu lanak, eta, kontratuaren dokumentazioaren interpretazioan, GHKk idatziz emango dizkion jarraibideen arabera; horiek nahitaez bete beharko ditu kontratatistak.

### 32 KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

#### 32.1 Izendapena

Zerbitzuak hasi baino lehen, kontratatistak berariaz izendatu beharko du, GHKren aurrean, bere ordezkaria, bere eskaintzan aurreikusitakoarekin bat. Ordezkariak bere gain hartuko ditu Baldintza Teknikoen Agirian zehaztutako betebeharrak. Izendatutako pertsona organo kontratatzaileak onartu beharko du.

#### 32.2 Zereginak

Kontratatistaren ordezkariaren oinarrizko zereginak hauek dira:

- Kontratatistaren ordezkaria izatea kontratu honen xede diren zerbitzuak gauzateari dagozkion kontratuaren betebeharrak betetzerakoan.
- Zerbitzuen gauzatzea antolatzea eta GHKtik jasotako aginduak interpretatzea eta gauzatzea.
- GHKrekin elkarlanean aritzea, zerbitzuak eskaintzen diren bitartean sortzen diren arazoak konpontzeko.
- Zerbitzua eskaintzerakoan egon daitezkeen hutsei aurrea hartzea eta neurri zuzentzaileak, prebentziozkoak, etab. proposatzea.





2015 UZT. 22

Aprobado por Consejo de Administración. (e)an onartua

Hernani,

2015 ABU. 04  
AGO.

Mazkariak,

- Kontratuaren xede diren prestazioak burutzeko giza baliabideak eta baliabide materialak antolatzea.
- Lanak optimizatzea.

### 33 ZERBITZUAK GAUZATZEKO ERREGIMENA

1. Kontratatistak zerbitzuak eskainiko ditu kontratuaren dokumentuetan ezarritako xedapenak modu zorrotzean jarraituta, beti dagokion eginbidea aplikatuz, eta GHKk kontratistari ematen dizkion jarraibideak betez.
2. Zerbitzuak gauzatzeko, osorik bete eta errespetatu beharko dira gauzatzearen unean aplikagarri diren arau tekniko guztiak. Kontratatistak une bakoitzean indarrean dagoen araudia bete beharko du eta, bereziki, lanaren, segurtasun eta osasunaren eta ingurumenaren babesaren alorrekin zerikusia duena.


Arau horiek ez betetzeagatik agintari eskudunek zigorrik ezarri gero, kontratatistak bere gain hartu beharko ditu, eta GHKk zerbitzuen ordainketak eten ahal izango ditu zigorrak ordaindu direla egiaztatu arte; etete horrek ez du kontratatistaren alde interes-eskubiderik sortuko.

3. Zerbitzuak eskaintzeko erabili behar diren ibilgailu, material, ekipo, elementu eta makinek bete egin beharko dituzte kontratuko dokumentazio guztian eta indarrean dagoen araudi aplikagarrian eskatzen diren kalitateak eta ezaugarriak.
4. Kontratatistak aukera izango du zerbitzuak bere bitartekoen bidez eskaintzeko edo bitarteko horietako batzuk enpresa gaitu batekin azpikontratatzuz, bere eskaintzan aurreikusitakoarekin bat eta baldintza-agiri honen [24.3](#) klausulan ezarritako baldintzen arabera.
5. Ordezkeriak edo kontratatistak ezin izango dute inolaz ere aldaketarik sartu edo gauzatu eskaini beharreko zerbitzuetan horiek alde aurretik onartu ez badira.

### 34 KONTRATISTAREN BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Kontratatistak teknikoki eta objektiboki beharrezko eta egokitzat jotzen dituen baliabide materialak eta giza baliabideak erabili beharko ditu zerbitzuak eskaintzeko, horiek eskaintako epearen barruan eta eskaintzak ezarritako kalitate baldintzetako bukatu ahal izateko.

Zerbitzuak eskaini ahal izateko baliabide materialak eta giza baliabideak xedatzea izango da kontratuaren funtsezko betebeharrak bat. Hori ez betetzea kontratua indargabetzeko arrazoia izango da.



Idazkarak,

### 35 ARRISKUA ETA MENTURA ZERBITZUAK GAUZATZEAN

1. Zerbitzuak kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko dira.
2. Zerbitzuak eskaintzerakoan kontratistaren ardurapeko berandutzarik gertatzen bada, baldintza-agiri honen 41 eta 43. klausuletan jasotako kontratuaren zigor eta indargabetze araubidean xedatutakoaren arabera jokatu da.

### 36 ZERBITZUAK GAUZATZEN DIREN BITARTEAN SORTZEN DIREN DESADOSTASUNAK KONPONTZEA

1. Kontratistari egin beharreko ordainketak onartzeko ikuskapenak eta kontrolak egiterakoan, GHKk antzematen badu ez direla burutzen ari kontratuaren dokumentazio osoan xedatutako moduan, horren gorabeherak jasotzen dituen espediente bat irekiko da, desadostasuna sortu duen zerbitzua edo zerbitzuak eta horien arduraduna identifikatzeko, baita desadostasun hori ixten den arte sortzen diren gorabehera guztiak jarraitzeko ere.
2. Espedientea ireki ondoren, kontratistaren ordezkariari aurrez entzunik, GHKk dagozkion neurri zuzentzaileak eta horiek ezartzeko epeak erabakiko ditu; horiek, aurretik, modu egokian dokumentatu beharko dira. Neurri zuzentzaile horiek ezartzen direnean eta GHKk antzemandako irregulartasunak behar bezala zuzendu direla ulertzen duenean, bere desadostasuna kenduko du, irekitako espedientea itxiaz.
3. Espediente horrek kontratistari dagozkion zigorrak ezartzea ekar dezake, baldintza-agiri honen VII. Kapituluan aurreikusitakoaren arabera.

### 37 DOKUMENTAZIOA KONTROLATZEA ETA EMATEA

#### 37.1 Dokumentazioa kontrolatzea

1. Kontratistak dokumentuen artxibatze sistema eta kontrol informatikoa ezarri eta mantendu beharko ditu, kontratu hau gauzatzeko fase guztietan dokumentuen identifikazioa, berrikuspena, egoera eta kokapena bermatzen direla ziurtatuz.

Kontratistaren dokumentuen kontrol sistemak kontuan hartu behar du, halaber, azpikontratisten dokumentazioa.

2. Kontratistak kontratuaren dokumentazioaren identifikazio sistema bat garatu eta mantenduko du, lan guztietan sartzeko, eta horrek kontratistari eta GHKri dokumentazioa kontrolatzea ahalbidetuko die, kontratua gauzatzen den bitartean.
3. Kontratistak ezarritako artxibatzeko sistema informatikoak GHKri dokumentazioa eskuratzea, azkar transmititzea eta guztiz erabiltzea ahalbidetu eta bermatu behar dio.



### 37.2 Dokumentazioa ematea

1. Kontratista behartuta dago, zerbitzuak gauzatzen diren bitartean, kontratuaren xedearen barne dagoen dokumentazio guztia ematera, osorik eta zuzen, kontratua gauzatzekoan GHKk onartzen dituen aldaketa eta hobekuntza guztiak barne hartuz, baldintza-agiri honetan eta kontratuaren gainerako dokumentuetan xedatutakoaren arabera.
2. Kontratatik dokumentazio hori guztia garatu beharko du, kontratuari aplikagarri zaizkion kode eta arau guztiak eta indarrean dagoen legedia kontuan hartuz.
3. Zerbitzuak eskaintzen amaitzen duenean, kontratatik GHKri zerbitzuak eskaintzen ziren bitartean sortu den dokumentazio guztiaren kopia emango dio, baita eman zaizkion baimen, lizentzia eta gainerako beharrezko baimen administratibo guztiena ere.

### 38 BERMEAREN EPEA

1. Zerbitzuen bermearen epea urte batekoa (1) izango da, gauzatzen denetik zenbatuta, kontratatik bere eskaintzan epe zabalagoa jarri ez badu; kasu horretan, bermearen epea kontratatik eskainitakoa izango da.
2. Bermearen epean zehar, kontratatik kontratua modu egokian betetzeko beharrezkoak diren konponketak eta bestelako jarduerak modu zuzenean egin direla ziurtatzeko beharrezko jarduerak egingo ditu. Kontratatik jarduera horiekin lotutako kostu guztien ardura hartuko du bere gain.

### 39 BERMEAREN EPEAREN AMAIERAKO ZIURTAGIRIA

1. Bermearen epea betetzeko azken hamabost (15) eguneko epearen barnean, GHKk izendatutako pertsona eskudunak edo eskudunek txosten bat idatziko dute zerbitzuen prestazioari buruz eta horiek kontratuaren dokumentazioan jasotako zehaztapenetara egokitu diren adieraziko dute. Txostena aldekoa bada, behin betiko bermea itzuliko da, kontratuaren behin betiko likidazioa egingo da eta, hala dagokionean, ordaintzeko dauden betebeharrak ordainduko dira.
2. Txostena aldekoa ez bada eta ikusitako akatsak zerbitzuak eskaintzeko uneko hutsak badira, eta horiek ezin bazaizkio GHKri egotzi eta GHKrentzat ondorio ekonomikoak eragiten badituzte, honek izendatutako pertsona eskudunek beharrezko jarraibideak emango dizkiote kontratatari, GHKri dagokion moduan konpentsatzeko edo izan ditzakeen ardurak estaltzeko.
3. Epe hori igaro eta gero kontratatik ez baditu zuzendu agerian utzitako akatsak, ez badio GHKri konpentsatu edo izan ditzakeen ardurak ez baditu estali, horren akta bat irekiko da, eta GHKk kontratua deuseztatu ahal izango du, kontratatari egotz dakizkiokeen arrazoiak tarteko, bermea konfiskatuz gainera. Horretaz guztiaz gain,

dagozkikeen kalte-ordainak ere sor daitezke. Akatsak konponduz gero, klausula honetako lehen paragrafoan aurreikusten den moduan jardungo da.

#### 40 KONTRATUAREN HARRERA

Kontratua kontratistak bete dela ulertuko da honek prestazio osoa kontratuaren terminoen arabera burutzen duen heinean eta GHKk nahi bezala.

Hilero, prestazioaren harrera ekintza egingo da, hileko fakturazioaren arabera, eta dagokion adostasun akta irekiko da.

GHKk zehaztuko du kontratistak egindako prestazioa hori gauzatzeko eta betetzeko ezarritako baldintzetara egokitzen den ala ez, eta kasua balitz, kontratatutako prestazioak burutzeko eta prestazioa hartzean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio, SPKLTBren 307. artikuluan eta HAKLEOren 203. artikuluan ezartzen den bezala.

Egindako lanak ez badira kontratatutako prestazioari egokitzen, kontratistari egotz dakizkikeen akatsen ondorioz, hori espreski jasoko da eta kontratistari akats horiek zuzentzeko jarraibideak emango zaizkio. Akatsak zuzentzen ez badira, GHKk kontratistaren kontura utziko ditu, eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da edo ordaindutakoa itzultzeko eskubidea izango du.

Bermearen epea urtebetekoa izango da, harrera-datatik zenbatuta, behin kontratua amaitu eta likidatu denean, luzapenak barne.

Bermearen epean egindako lanetan akatsak daudela kreditatuko balitz, Kontratazio-organoak kontratistari horiek zuzen ditzan eskatzeko eskubidea izango du.

Bermearen epea igaro bada eta GHKk ez badu aurreko ataletan adierazten diren eragozpen edo salaketarik egin, kontratista egindako prestazioari dagokionez erantzukizunetik salbuetsita geratuko da.

Kontratistak, kontratatutako prestazioa betetzearekin lotuta formulatzen diren oharrei buruz esateko duena entzun dakien eskubidea izango du.

### V. KAPITULUA: DIZIPLINA-ARAUBIDEA

#### 41 ARAU-HAUSTEAK

Esleipendunak kontratua betetzen ez badu, GHKk zigorrak ezarriko dizkio. Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.



#### 41.1 Arau-hauste oso larriak.

Arau-hauste oso larriak honako hauek izango dira:

- Zerbitzuak berandu eskaintzen hastea, aurreikusitako datatik hilabete baino gehiago igaro denean, GHKk bere gain hartutako ezinbesteko arazoak daudenean izan ezik.
- Zerbitzuaren prestazioa gelditzea edo etetea, GHKk bere gain hartutako ezinbesteko arazoak daudenean izan ezik.
- Zerbitzua burutzean salatutako anomalia bat kontuan ez hartzea edo ez zuzentzea.
- GHKtik, zerbitzuen ordenari, moduari eta erregimenari buruz emandako aginduak, eta oro har, zerbitzuen prestazioa arautzen duten GHKk zehaztutako arauak ez obeditzea.
- Enpresa kontratatzaileak, kasu honetan GHKk, eska ditzakeen datuak eta informazioak ezkutatzea edo faltsutzea, edo horiek ez aurkeztea ezarritako protokoloaren edo egutegiaren barruan.
- Konprometitutako kamioi kopurua ez edukitzea.
- Fluxu desberdinen garraiorako garbiketa protokoloak ez betetzea.
- **Hiru arau-hauste larri pilatzea.**

#### 41.2 Arau-hauste larriak

Arau-hauste larriak hauek izango dira:

- Zerbitzuaren prestazioan sistematikoki atzeratzea.
- Behin eta berriz eskatutako ordutegiak ez betetzea, eskaintako baliabide materialak ez erabiltzea edo horiek kontserbazio-egoera txarra izatea.
- Giza baliabideak edota materialak erabiltzerakoan, kopurua edo kalitatea eskaintakoa baino txikiagoa izatea.
- Fluxu beraren garraiorako garbiketa protokoloak ez betetzea.
- Jarduera-epeak justifikatu gabe ez betetzea, konprometitutako aldizkako informazioa garaiz ez aurkeztea.
- GHKko zerbitzu teknikoekin elkarlanean behar ez bezala aritzea.

- Hiru arau-hauste arin pilatzea.

### 41.3 Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arintzat joko dira ezarritako zerbitzuaren gauzatze-epeak ez betetzea eta lehen aurreikusi ez diren guztiak, baldin eta baldintza-agiri honetan ezarritako baldintzei kalte egiten badiete nolabait.

Dagokion zigorra gorabehera, hondakinaren karga-mugimenduak behar bezala egiteko benetako zerbitzuaren ordutegiak ez betetzeak (kasu bakoitzean zehazten dena), GHKk esleipendunari ordainduko dion zerbitzu-prestazioari dagokion prestazio ekonomikoa automatikoki murriztea ekarriko du. Murriztuko den zenbatekoa kalkulatzeko zerbitzuaren orduko kostua hartuko da, non eskainitako zerbitzuaren ordu bakoitzaren kostu guztiak barne hartuko diren, GHKrekin kontratatutako zerbitzu osotik.

## 42 ZIGORRAK

### 42.1 Zigorren araubidea.

- Arau-hauste arinek 300 € eta 1.000 € arteko zigorra ezartzea ekarriko dute.
- Arau-hauste larriek 1.001 € eta 10.000 € arteko zigorra ezartzea ekarriko dute.
- Arau-hauste oso larriek 10.001 € eta 60.000 € arteko zigorra ezartzea ekarriko dute.

Hiru arau-hauste oso larri pilatzen badira, GHKk beretzat gordetzen du esleipendunarekin kontratu-harremana bertan behera uzteko eskubidea.

Era berean, zerbitzua bertan behera geratzen bada edo zerbitzuari eragiten dioten irregulartasun larriak baldin badaude, GHKk beretzat gordetzen du esleipendunarekin kontratu-harremana bertan behera uzteko eskubidea, eta beste norbaitengana jo ahal izango du kontratatutako zerbitzua bermatzeko. Kasu honetan, GHKk beretzat gordeko luke bere iritziz bidezkoak diren legezko ekintzak abiarazteko eskubidea.

Esleipendunak egin dituen arau-hausteen larritasuna, baita zigorra eta horren zenbatekoa ere, GHKko zerbitzu tekniko eta administratiboek zehaztuko dute. Zenbateko horiek, enpresa esleipendunari eta zigortuari GHKk ezarritako zigorra jakinarazi ondoren egingo dizkion ordainketetatik kenduko dira.



#### 42.2 Zigorrek mailakatzea

GHKk zigorrek ezartzerakoan arau-haustearen larritasunaren eta aplikatutako zigorraren arteko egokitasuna mantendu beharko da; horiek mailakatzeko ondoko irizpideak jarraituko dira: (i) arau-hauste mota; (ii) nahita egin den ala ez; (iii) eragindako kalteen izaera; (iv) berriro egitea, urtebetean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egiteagatik eta (v) kontratistak lortutako onura.

#### 42.3 Zigorrek eta isun hertsatzaileak eguneratzea

Baldintza-agiri honetan aurreikusitako zigorren eta isun hertsatzaileen zenbatekoa urtero eguneratuko da KPI nazionalaren edo autonomikoaren arabera, hori txikiagoa balitz.

### VI. KAPITULUA: KONTRATUAREN AMAIERA

#### 43 KONTRATUAREN AMAIERA

Zerbitzu-kontratu hau kontratua betetzen denean edo suntsiarazten denean amaituko da.

##### 43.1 Kontratua betetzea.

Kontratistak kontratu honen xede diren prestazioak osorik betetzen dituenean amaituko da kontratua, baldin eta kontratuaren dokumentazioan ezarritako baldintza guztiak bete badira GHKren oniritziarekin, baldintza-agiri honetako 0. klausulan ezarritako epearen barruan edo, kasua bada, epeari buruz erabakitako luzatze edo laburtzeen barruan.

##### 43.2 Kontratua suntsiaraztea.

Zerbitzu-kontratua suntsiarazteko kausa izango dira SPKLTBko 223 eta 308. artikuluetan ezarritakoak eta, oro har, kontratu-betebeharrak ez betetzea, Kode Zibileko 1.124. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratua garaiz aurretik suntsiarazteak honako ondorioak izango ditu:

- Kontratua bi alderdiak ados jarrita suntsiarazten denean, alderdi baten eta bestearen eskubideak GHKren eta kontratistaren artean balio osoz onartutakoari egokitu behar zaizkio.
- Kontratistaren erruz bete gabe geratzeagatik suntsiarazten bada kontratua, sortutako kalte eta galeren ordainak eman beharko dizkio kontratistak GHKri,



2015 UZT. 22

Aprobado por Consejo de Administración (e)an onartua

Hernani,

2015 ABU. AGO. 04



Idazkaria,

konfiskatutako bermea gainditzen duen zatian, eta kasu guztietan kontratu-prezioa klausula penal bat ezarrita.

Klausula honetan aurreikusitako suntsiarazteko kasuetako edozeinetan, suntsiarazpen hori automatikoki gertatuko da, horretarako GHKk kontratistari egingo dion jakinarazpen fede-emaileaz bestelako baldintzarik gabe.

Jakinarazpen hori jasotzen duenean, kontratistak berehala eman beharko dizkio GHKri, bere eskura jarriz, kontratua dela-eta ordura arte egin edo sortu diren dokumentu guztiak, eta horiek guztiak GHKrenak izango dira ordutik aurrera.

Ondorio horietarako, gauzatze egoeraren akta bat idatziko da, GHKk bukatuta eta emanda ulertzen dituen dokumentu eta lanak, eta eman eta jaso ez direla ulertzen direnak, baita ez jasotze horren arrazoiak ere, zehaztuta gera daitezzen. Horrela, GHKk kontratuaren gauzatzearekin jarraitu ahalko du, bere kabuz edo hirugarren baten eskutik.

Horrek guztiak ez du kaltetuko bidezkoa den kontratuaren ondorengo likidazio ekonomikoa, jarraian ezarritakoaren arabera.

Klausula honetan adierazitako kausengatik nahiz legezko litekeen beste edozeinengatik suntsiarazitako kontratutik ondoriozta litezkeen erantzukizun ekonomikoak behin kontratua suntsiarazita eta dokumentazioa eta dagozkion lanak entregatu ondoren likidatuko dira; horrek ez du eragotziko, ordea, GHKk hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Suntsiarazpen kasu guztietan, kontratistak printzipioz egin dituen lan guztien prezioa jasotzeko eskubidea izango du.

Kontratua kontratistaren erruz bete ez delako suntsiarazten denean, GHKren alde, bidezkoak diren gainerako kalte-galeren kalte-ordainez gain, kontratuaren prezioaren % 20ari dagokion zenbatekoa sortuko da eta hori metatu ahal izango da.

Bi zenbatekook behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeko falta den preziotik kenduko dira; gainerakoari dagokionez, halakorik balego, dagokion erreklamazioa egingo litzateke.

Klausula honetan aurreikusten ez den guztian, SPKLTBko 224, 225 eta 309. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.






ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015 UZT. 22

(e)an onartua  
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 ABU  
AGO



### I. ERANSKINA. ARDURAPEKO ADIERAZPENAREN ERÉDUA

.....  
jaunak/andreak, ..... z.k.ko NAN duenak, bere izenean  
edo (adierazi ordezkari-ahalmena: administratzaile bakar, ahalordedun) gisa, .....  
....., (IFK .....)  
enpresaren ordezkartzan

#### ADIERAZTEN DU

- Bai berak, bai ordezkatzan duen enpresak, Administrazioarekin kontratuak egiteko ahalmena dutela, jarduteko gaitasun osoa dutelako eta ez daudelako sartuta **SPKLTBko 60. artikuluan** aurreikusten diren egoeretan. Bereziki eta berariaz adierazten du ez duela zigor irmorik jaso laneko segurtasun eta osasunaren arloan arau-hauste oso larria egiteagatik, SPKLTBko 60.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela, indarrean dauden xedapenek ezarri bezala eta **Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 13. eta 14. artikuluek** aurreikusten duten neurrian (urriaren 12ko 1098/2001 ED).
- **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela** kontratuaren xedeari dagokion epigrafean eta ez duela baja eman zerga horren matrikulan.

Eta jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ardurapeko adierazpen hau sinatzen dut .....(e)n, ..... ko ..... ren. ....(e)an.

Sin.: (ENPRESAREN ZIGILUA)



2015 UZT. 22 (e)an onartua  
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 ABU. AGO.

04



Idazkaririk

**II. ERANSKINA. PROPOSAMENA GHK-KO SARRERA-ERREGISTROAN ENTREGATZEKO EREDUA**

..... jaunak/andreak, ..... zk.ko NAN duenak, bere izenean edo, kasua bada, ..... enpresaren, IFZ zk....., helbidea .....(e)n, fax zk. .... eta/edo helbide elektronikoa..... dituenaren ordezkartzan

**ADIERAZTEN DU:**

Gaur, .....e(t)an (\*), "SAN MARKO MANKOMUNITATEKO HIRI-HONDAKINAK GARRAIATZEKO ZERBITZU-KONTRATUA"ren lizitaziorako kontratazio-espedienterako proposamena aurkeztu duela.

Hernanin, 2015eko .....ren .....(e)an

Sin.:

(Aurkezlearen sinadura)






Hernani,

2015

ABU.  
AGO

04



**III. ERASKINA. ENPRESA ATZERRITARREN ADIERAZPENA**

..... jaunak/andreak,  
helbidea .....  
..... (e)n,  
..... zk.ko NAN, ..... telefonoa eta  
..... helbide elektronikoa dituenak, gaitasun juridiko eta jarduteko  
gaitasun erabatekoaren jabe izanik, bere izenean (edo  
.....,  
helbidea .....(e)n, eta  
NAN edo IFK zk. .... [pertsone fisiko edo juridiko den kontuan  
izanda] dituenaren ordezkarietan), **"SAN MARKO MANKOMUNITATEKO HIRI-  
HONDAKINAK GARRAIATZEKO ZERBITZU-KONTRATUA"**ri buruzko prozedura  
negoziatu publikitate-dunaren bidezko lizitazioan parte hartzeko GHKk egindako  
gonbita jasota,

**ADIERAZTEN DU**

- 1.- Kontratutik zuzenean edo zeharka etor litezkeen gorabehera guztietan Espainiako edozein motatako epaitegi eta auzitegien mende jartzen dela eta, hala dagokionean, lizitatuzaileari atzerrian egokitu dakiokkeen foru-jurisdikzionalari uko egiten diola.
- 2.- Europar Batasunetik kanpoko atzerriko enpresa bada, Espainian sukurtsal bat irekia duela egiaztatzen duela, egin beharreko eragiketarako ahalordedunak edo ordezkariak izendatuta dauzkala, eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoela.
- 3.- Konpromisoa hartzen duela dokumentazioa gaztelaniara edo euskarara ofizialki itzulita aurkezteko, HAKLEOko 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eta jasota gera dadin eta behar den ondorioak izan ditzan, ardurapeko adierazpen hau sinatzen du 2015eko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_(e)an.

Sin.: \_\_\_\_\_



Hernani,

2015 ABU  
AGO 04



Idazkaria  
*[Handwritten signature]*

**IV. ERANSKINA. KOMUNIKAZIOETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOAK(K)**

.....  
jaunak/andreak, adin nagusikoak, helbidea. .... (e)n  
eta ..... zk.ko NAN dituenak, .....  
.....ren, sozietatearen egoitza .....  
.....(e)n eta ..... zk.ko IFK  
dituenaren, izenean eta ordezkaritzan,

**AZALTZEN DU**

Ondorio guztietarako, eta bereziki dokumentazio administratiboko akatsak zuzentzeko eskaerak jasotzeko, helbide elektronikoa hau(ek) izendatzen d(it)uela:

(Bat baino gehiago jar daitezke)

Helbide elektronikoa horretara edo horietara dokumentazio- edo informazio-eskaerak bidaltzeak hasiera emango dio baldintza-agiri honetan ezarritako epea zenbatzeari, zehazki, baldintza administratiboaren agirian adierazitako dokumentazio administratiboa zuzentzeko epeari.

Eta jasota gera dadin eta behar den ondorioak izan ditzan, ardurapeko adierazpen hau sinatzen du 2015eko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_(e)an.

Sin.: \_\_\_\_\_



Idazkaririk  


**V. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA**

"..... jaunak/andreak,  
helbidea .....  
..... (e)n,  
..... zk.ko NAN, ..... telefonoa eta  
..... helbide elektronikoa dituenak, gaitasun juridiko eta jarduteko  
gaitasun erabatekoaren jabe izanik, bere izenean (edo  
.....,  
helbidea .....(e)n, eta  
NAN edo IFK zk. .... [persona fisikoa edo juridikoa den kontuan  
izanda] dituenaren ordezkartzan), "SAN MARKO MANKOMUNITATEKO HIRI-  
HONDAKINAK GARRAIATZEKO ZERBITZU-KONTRATUA"ri buruzko prozedura  
negoziatu publizitadedunaren bidezko lizitazioan parte hartzeko GHKk egindako  
gonbita jasota,

ADIERAZTEN DU:

- 1) Konpromisoa hartzen duela zerbitzua ondoko unitate-prezioen (BEZ gabe) arabera gauzatzeko.

BIOHONDAKINA ETA ERREFUSA	BIOHONDAKINA				BIOHONDAKINA ETA ERREFUSA
GIPUZKOAKO HONDAKINDEGIAK ETA INSTALAZIOAK	FUNES	LOREKI	BARTZELONA	CAPARROSO	ALDAKORRA
_____ €/tn	_____ €/tn	_____ €/tn	_____ €/tn	_____ €/tn	_____ €/tn/kmko

Horren gehigarri, dagokion BEZa fakturatuko da.

- 2) Prezioan sartuta daudela kontzeptu guztiak, barne hartuz, edozein arlo fiskaleko gainerako zergak, gastuak, tasak eta arielak eta baita kontratistaren mozkin industrialak ere.
- 3) Kontratu hau arautuko duten Baldintza Ekonomiko Administrazioen Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria ezagutzen dituela eta berariaz bere egiten dituela eta oso-oso onartzen.
- 4) Berak ordezkatzeko duen enpresak betetzen dituela tributuen eta Gizarte Segurantzaren arloan indarrean dagoen araudiak ezarritako eskakizun eta betebeharrak guztiak.

.....(e)n, 2015eko .....ren.....(e)an.

Sinadura.





**VI.- ERANSKINA: SUBROGAZIO BIDEZ GARRAIO ZERBITZUARI ATXIKITAKO LAN ZERRENDA.**

LANGILEA	LANPOSTUA	ANTZINATASUNA	PORTZENTAIA	LAN HITZARMENA	KONTRATU MOTA	ENPRESAREKIN ADOSTUTAKO PLUSA	2015 SOLDATA ETA PAREKATUAK. URTEKO GORDINA (101)	2014 GIPUZKOA BIDE GARBIKETA HITZARMEN ORDUAK
1	ARDURADUNA	2009.11.18	%100	GIPUZKOA BIDE GARBIKETA	189	8.000,00	42.587,53	1.589,50
2	GIDARIA	2013.10.20	%100	GIPUZKOA BIDE GARBIKETA	401		31.540,49	1.589,50
3	GIDARIA	2011.02.22	%100	GIPUZKOA BIDE GARBIKETA	401		32.165,49	1.589,50
4	GIDARIA	2008.03.13	%100	GIPUZKOA BIDE GARBIKETA	150		33.928,71	1.589,50
5	GIDARIA	2008.03.14	%100	GIPUZKOA BIDE GARBIKETA	189		33.928,71	1.589,50
6	GIDARIA	2010.06.15	%100	GIPUZKOA BIDE GARBIKETA	401		31.165,49	1.589,50
7*	GIDARIA	2013.11.12	%100	GIPUZKOA BIDE GARBIKETA	401		31.540,49	1.589,50
8	GIDARIA	2014.10.01	%100	GIPUZKOA BIDE GARBIKETA	410		31.540,49	1.589,50

\* 7 Zenbakia duen langilea gaur eszedentzian aurkitzen da. Bera ordezkatzeko duen langilea 8 zenbakia duena da.

**ADMINISTRAZIO KONTSELUAK**

**2015 UZT. 22**

.....  
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015  
Ago. 04



**GHK**  
Gipuzkoako  
Hondakimen  
Kudeaketa



